

ttipi-ttapa



Paula BELZUNEGI MORENO | Piano-jotzailea

«PUBLIKOAREN AURREAN JOTZEA ESPERIENTZIA BEREZIA DA»

Ibilbide luzea egiten ari da musikari baztandarra.

Londresen goi mailako ikasketak egin ditu eta gaur egun,

Suitzan masterra egiten dihardu. Etorkizun handiko piano-jotzailea, dudarik gabe. / 8

Ezohiko udan ezohiko planak

Egoerak hala behartuta, normalean uda garaian hartu izan duten bidea alde batera utzi behar izan dutenen bizipenak. / 10

SINADURAK



FERNANDO
ANBUSTEGI
GOÑI / 3



AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3



AMAIA
LUJANBIO
GOIZUETA / 4



EILA
SAGASTIBELZA
PIKABEA / 4

UDAKO OPORRALDIA
Abuztuarekin batera iraila
arte agurtzeko tenorea ailegatu
zaigu. Irailaren 3an hartuko
duzue hurrengo **TTIPI-TTAPA!**

Uda
ona
pasa!



TELEFONO GIDA



ZOZKETA / 32

BERA LESKA

Agenda 2020

ABUZTUA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

**LESAKAKO
UDALA**

<p>07 ORTZIRALEA</p>	<p>EKITALDIA Haurrentzako altxorrenen bila kulturala</p> <p>18:30 Plaza zaharra.</p> <p style="background-color: #800000; color: white; padding: 2px; text-align: center;">LESKA</p>
<p>21 ORTZIRALEA</p>	<p>DANTZA EMANALDIA Puxkak</p> <p>19:00 Harriondoa atarian. Taldea Led Silhouette-Unaiuna -Tantirumairu Euskal Folkore Taldea</p> <p style="background-color: #800000; color: white; padding: 2px; text-align: center;">LESKA</p>
<p>28 ORTZIRALEA</p>	<p>EKITALDIA Bertso saioa</p> <p>20:30 Onin gaineko zubi konkordunean. Bertsolariak Xabier Silveira eta Unai Iturriaga</p> <p style="background-color: #800000; color: white; padding: 2px; text-align: center;">LESKA</p>
<p>08 LARUNBATA</p>	<p>KONTZERTUA Mugaldekoak Band</p> <p>19:00 Altzateko plaza. Informazio gehiago www.mugaldekoak.com</p> <p style="background-color: #000080; color: white; padding: 2px; text-align: center;">BERA</p>
<p>22 LARUNBATA</p>	<p>KONTZERTUA Afrika Bibang</p> <p>19:00 Altzateko plaza.</p> <p style="background-color: #000080; color: white; padding: 2px; text-align: center;">BERA</p>
<p>13 ORTZEGUNA</p>	<p>TXOTXONGILO ANTZERKIA Egur Taupadak</p> <p>19:00 Eltzeta plazan. Taldea Tipia Produksioak</p> <p style="background-color: #800000; color: white; padding: 2px; text-align: center;">LESKA</p>
<p>30 IGANDEA</p>	<p>KONTZERTUA HURIH</p> <p>13:00 Koskila iturrian. Taldea Hurih</p> <p style="background-color: #800000; color: white; padding: 2px; text-align: center;">LESKA</p>
<p>15 LARUNBATA</p>	<p>KONTZERTUA Old School Funky Family</p> <p>19:00 Altzateko plaza. Informazio gehiago www.osff.fr</p> <p style="background-color: #000080; color: white; padding: 2px; text-align: center;">BERA</p>
<p>23 IGANDEA</p>	<p>EKITALDIA Ipuin Kontalaria</p> <p>18:30 Iturbena plaza. Taldea Ameli ipuin Jostune</p> <p style="background-color: #800000; color: white; padding: 2px; text-align: center;">LESKA</p>
<p>30 IGANDEA</p>	<p>EKITALDIA Bat, 2, hiru... magia!</p> <p>19:00 Merkatu Plaza. Informazio gehiago www.magosun.com</p> <p style="background-color: #000080; color: white; padding: 2px; text-align: center;">BERA</p>

Erakutsi eta
aprobetxatu
aukerak!

DESKONTUAK

LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

<p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%3</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55</p>	<p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%10</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">Landa Behokoa LEITZA T. 948 51 04 37</p>	<p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">Uharte Gotzaina, 1- beheha 4 LEITZA T. 948 51 36 20</p>	<p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%3</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55</p>
<p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">Huarte Gotzaina, 19 LEITZA T. 948 51 01 73</p>	<p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%10</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan ESTMEDERM markan ezik</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73</p>	<p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%10</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA koltxoi, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08</p>	<p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%15</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA bainugelako osagarrietan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">Elgoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86</p>
<p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76</p>	<p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%10</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA oparitzeko artikuluetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46</p>	<p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA 25€tik gorako erosketetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">Amazabal, 23 LEITZA T. 948 61 09 74</p>	<p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA erosketa guztietan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48</p>
<p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%10</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA hamar saioko bonoan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">Uharte Gotzaina, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30</p>	<p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA erosketa guztietan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48</p>	<p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA erosketa guztietan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48</p>	<p style="text-align: center; background-color: #800000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">%10</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA hamar saioko bonoan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">Uharte Gotzaina, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30</p>



NIRE TXANDA

FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI

Ez seinalatu

Aspaldi ikasi nuen ez dela inor seinalatu behar, gehienek bezala. Teoria ongi ikasia dugu, baina praktika desberdina da, batzuk bederen seinalatzearena eguneroko jarduna dute, ez norberak bere burua, baizik eta beti auzokoa.

Covid-19ak denei eragin digu, eta jakina da zoritzarreko egoera aunitz, heriotzerainokoak, ekarri dituela. Gauza positiboak ere utzi dizkigu, osasunari eta daukagunari garrantzia ematea, bertakoa baloratzearena, elkartasuna...

Figura berriak ere ezagutu ditugu, auzoetan sumatu ditugun balkoietako poliziak, auzokideen joan-etorriak kontrolatu eta batzuetan salatu ere egin dituztenak. Orain ere ez da poliziarik falta, ez balkoietakoak, han eta hemen ageri diren polizia «sekretak» baizik, jendea seinalatzen dutenak. Argi dago denok zaindu behar dugula gure jokabidea, gure jokabideak berteengan ere eragina duelako, baina koronabirusen positibo ematea nahikoa zoritxarra da, guk gainera hura seinalatu eta epaiketarik gabe errudun izendatzeko. Ez dezagun inor seinalatu, hurrengoa zu izan zaitezke.

«EZ DEZAGUN SEINALATU. HURRENGOA ZU IZAN ZAITEZKE»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

(A)normaltasun berriko udako alea

Zuzen bidean, herrietako bestetako programak eta argazkiak bertzerik ez zenituzkete irakurriko eta ikusiko abuztuko aldizkari honetan. Maskara azpiko (a)normaltasun berri honetan, ordea, oporrik eta bestarik ezean antolatutako ekitaldien berri topatuko duzue, azken orduko albisteak, uda giroko iritzi eta bertsoak... Irailean bueltatuko gara, normal?

NABARMENTZEKOAK



XABAT ILLARREGI MARZOL
BERTSOLARIA



PASKUAL REKALDE IRIGOIEN
EUSKALTZAIN OSOA

Xabat Illarregi nagusitu zen uztailaren 27an Azpeitian jokaturako X. Erniarraitz Bertso Sariketan. Sei finalisten artean, 292,5 puntu lortu zituen leitzarrak eta berak jantzi zuen txapela.

Paskual Rekalde Amaiurko hizkuntzalaria euskaltzain oso izendatu du Euskaltzaindiak. Berak beteko du Andres Iñigo emeritu izatearen ondorioz sortutako hutsunea.

ATZERA BEGIRA



2010-08-05 · TTIPI-TTAPA · 524 zk.

Herrietako bestarik ez

Hagitz bertzelako irudiak ikusiko ditugu uda honetan herriz herri. Ez dugu duela hamar urteko TTIPI-TTAPA aldizkarian agertu zen irudi horren gisakorik ikusiko. Amaiurko bestetan hartutakoa da, eta jendetza ageri da mahaiaren bueltan. Baina bertze edozein herrietako bestetan ateratakoa izan zitekeen, mahai inguruan, dantzari, herri kiroltan, jolasen... Azken finean, bestan. Aurten, ordea, ez da herrietako bestarik izanen eta horrek TTIPI-TTAPA aldizkariak garai honetan izan ohi edukia ere goitik beheiti aldarazi du. Honekin batera irailera arte agurtzeko tenorea ailegatu zaigula jakinarazi nahi dizuegu. Irailaren 3an izanen duzue berriz hamabortzeroko hitzordua TTIPI-TTAPAREKIN.



erran. eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemalleak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Aranxa eta Iraia, Irune Elizagoin,
Maider Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etzekolonea,
Aintzane Leiza, Pablo Irastortza,
Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari
Barriola, Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Aranxa Iturralde,
Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier
Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione
Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apezetxea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Akelarre elkarteak

2020ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	39€
Leitza	28€
Hego Euskal Herria	47€
Ipar Euskal Herria, Europa	86€
Amerika eta Australia	139€

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra





KOLABORAZIOAK

AMAIA LUJANBIO GOIZUETA

Ziurtasunik gabe

Azken hilabeteetan, gure bizitza sakonki aldatu da koronabirus madarikatuarengatik. Beharrezkoak ez diren heriotzak, gure maiteekiko kezka, kutsatzeko eta gaixotzeko arriskua, komunikazio eza, bakardadea, krisi ekonomikoa. Beste edozein krisi bezala, Covid-19ak gure gizartearen onena eta txarrena ateratu du. Alde batetik, txikiak nola moldatu diren ikustea zoragarria izan da, ustekabeko heldutasunarekin, zaharragoi lezio bat emanez. Osasunbidetako langileen ekintzak heroikoak izan dira. Beraien bizitza eta beraien familiakoena arriskuan jarri milaka pertsonena salbatzeko, atsedetik gabe lan eginez. Jende arruntak ere keinu txiki bidez eskuzabaltasun handia erakutsi du: maskarak eskuz josiz eta bizilagunekin banatuz, erosketak edo afaria eginez bizilagunei, kontu-kontari gure helduak entretenituz. Zientifikoek ere lezio ederra eman dute: mundu osoko laborategiek bat egin dute birus iheskor hau aztertzeko, jada kutsatuta dauden gaixoei botikak emateko, eta txerto arrakastatsu bat lortzeko. Beste aldetik, akats asko ere izan dira, birus ikusezin honen ondorioak okertu dituztenak. Erabakiak beranduegi hartu dira, neurriak batzuetan gogorregiak, besteetan eskasak, eta askotan zentzugabekoak, koronabirusaren kasuak moteldu eta aldi berean ekonomia prekario hau nolabait mantentzeko.

**«GAUZA BAT DAUKAT
ARGI: EZJAKINTASUNA
BIRUS HAU BAINO
OKERRAGO DA»**

irailean, nork irabaziko duen hurrengo futboleko partidua, lan hori lortuko dudana edo ez... Hala ere, badira zenbait errutina gure egonkortasunean ziurtasuna ematen digutenak. Baina birusak errutina eta ziurtasun horiek hautsi ditu. Ez dakigu noiz izanen dugun txerto arrakastatsu bat, noiz ikusiko ditugun urrutit dauden lagunak eta senideak, noiz bueltatuko diren eskolara umeak eta irakasleak... Ziurgabetasun honek ikertzailearen lana eta bizia gogorarazten dizkit (eta ez naiz lan baldintzei buruz bakarrik ari!). Askok usteko dute zientzialariak ziurtasunera ohituta gaudela. Zientzia ziur-ziurra dela, zehatz-zehatza, baina ez. Zientziaren helburua errealitatea ahalik eta modu objektiboenean deskribatzea da. Baina objektibotasun hori eskura ditugun teknikek mugatzen dute. Horregatik, ikerlariak ziur gaude ziurtasun osorik gabe lan egiten dugula. Aldi berean, badakigu etsai ikusezin eta ezezagun bati aurre egitea oso zaila dela, bere hurrengo urratsak zein izanen diren aurreikustea ezinezkoa baita. Kasu zehatz honetan, apurka-apurka, Covid-19a sorpresaz beteta dagoela deskubritzen ari gara eta oraindik asko dugu ikasteko. Adibidez, birus hau, gu ohartu gabe, zabal daitekeela, eta kaltea ia itzulezina eta konponezina denean bakarrik ikus dezakegula. Hainbeste ziurgabetasunen artean, gauza bat daukat argi: ezjakintasuna birus hau baino okerragoa dela. AEBetan dugu horren adibiderik onena (edo txarrena).

Birusak gure bizitzan sortzen duen ziurgabetasuna hainbeste hitz egin ez den gai bat izan da.

Egia da gure bizitzak beti nolabaiteko ziurgabetasun bat duela. Ez dakigu ze eguraldi eginen duen



EILA SAGASTIBELTZA PIKABEA

Hezkuntza sistemaz

Ez natorkizue azken orduko gaiekin. Ez da horixe atzo goizekoa. Azken hilabeteetako gai bakarra izanen dut aipagai, eta egia erran, ni ere aspertua naiz gai bera entzuteaz. Haatik, ez nuke ene baitan itzulika den gogoeta ttiki bat aipatu gabe utzi nahi. Euskalteleko iragarki hartaz oroitzen zarete? «Online nago» zioen. Konfinamendu honetan zinez «online egon gara». Etengabe dozenaka bideo eta argazki ailegatzten zitzaizkigun, eta anitzek ez zutela irudimenik falta onartu behar da. Jasotako ehunka «meme» horien artean bat da buruan ongi atxiki dudana. Bitan zatitua zen: gaineko irudian Titanic itsasontzia urperatzen ageri zen eta zera idatzia zen: «Mundua oraintxe bertan». Azpikoan, aldiz, film horren bukaeran, itsasontzia urperatzen ari den momentuan musikarien irudia. Hauxe idatzia zen: «irakasleak online irakasten». Xelebrea iruditu zitzaidan, baina aldi berean, errealitatearen isla. Mundua gelditzen ari bazen ere, irakasleok musika jotzen segitu dugu. Hezkuntza egoera horri buruz mintzo diren artikulua ere andana izan dira. Horrela ba, neure buruari galdegin diot: zein izan dira jarraipen pedagogiko horren helburuak? Horrelako egoeretan deus gertatuko ez balitz bezala «irakasten» segitu behar genuke? Argi dago denentzat (familia nahiz irakasleentzat) egoera

**«HEZKUNTZA
SISTEMA EZ DA
EGOERA BEREZI
HONETARA EGOKITU»**

berria izan dela, denek egokitzeko gaitasuna erakutsi behar izan baitugu. Hala ere, agintariak, bai guraso, bai ikasle baita irakasleak ere tranpa batean sartu gaituztela iruditzen zait. Helburu berekin segitzea nahi izan dute, eta guk, noraezean, sistema segitu dugu. Gurasoentzat ere ez da erraza izan, anitzek haien lanaz gain, haien seme-alaben lana bermatu dutelako, eta hori txalotzekoa da.

Hezkuntza sistema ez zaio egoera berezi honetara egokitu. Ez dut uste deus pasako denik ikasleek teoriarain bereganatu beharreko nozioak hilabete batzuen buruan bereganatzen badituzte. Zer aldatuko du horrek haien etorkizunean? Hogei urteren buruan sumatuko ote da, erraterako ikasle batek zatiketarik usaian baino hilabete batzuk beranduago ikasi izana? Eskatu zaigun jarraipen pedagogiko horrek, pertsoneri beharrean, sistemari erantzun diola uste dut. Eskolak ez ditu bakarrik nozioak bermatzen. Nozioez gain, bertze bizipen eta ikaspen franko bada eskolan. Bistan da ezin zela jarraipen hori bat-batean bertan behera utzi. Hezkuntza bermatu behar da, baina sistema aldatzen den neurrian, helburuak ere aldatu eta egoerari egokitu beharko litzazkioke.

11 GALDERA LABUR

JOANA URBISTONDO LARRALDE SARAKO LABORARIA

«Laborari izatea jakia sortzea da, bururaino eramatea»

Laboraria zara. Noiz erabaki zenuen etxeko lanari segida ematea?

2012an gelditu nintzen etxaldean ikasketak finituta. Argi nuen baserrian gauzatu nahi nuen proiektua eta horri ekin nion. Zer egiten duzu egunerokoan? Sasoiaren arabera lana aldatu egiten da: ardiak zaindu, bazkatu, jetzi, gasna eta esnekiak egin, salmenta, sagardiko lanak, sagarno eta jusaren ekoizpena, kanpoko lanak, kontuak eramane...

Zer da baserrian ekoizten duzuen?

Ama eta anaiarekin ari naiz lanean eta ardi esnedunak, behi gorriak eta sagarrondoak ditugu. Esnea, sagarra eta haragia eraldatzen eta zuzenki saltzen saiatzen gara.

2012an gasnatze proiektu bat garatu zenuen.

Burasoek ardi esnea kooperatiba bati saltzen zioten eta nire proiektu nagusia esnea etxaldean eraldatu eta saltzea izan zen.

Laborari izatea, niretzat, jakia sortzea da, bururaino eramatea.

Sarako azoka duzue ekoizleen bilgune. Zenbatero biltzen zarete?

Azoka astero, ortzegungoizetan, egiten dugu, errebote plazan.

Zertan eragin du koronabirusak salmentetan?

Barazki eta haragi ekoizleen salmentek goiti egin dute konfinamenduan; gasna, aldiz, gutiago saldu dugu. Gaitzarengatik lana gehitu zaigu, manaketak hartu behar genituen...

Jendeak bertako produktuak estimatzen ditu?

Guregana etortzen den jendeak gure ekoizpena, gustuduna, bertakoa, sana, sasoiakoa...



estimaten duela iruditzen zait... Euskal Herrian badugu bertako produktu andana atzemateko xantza.

Zergatik egin behar genuke bertakoaren alde?

Gauza anitz babesten dugulako: elikadura burujabetza, kanpokoarekiko menpekotasun gutiago izatea, osasuna, inguramena errespetatzen duten tokiko arrazak, landare motak eta praktikak, naturarikiko lotura eta jakintzak...

Lan lotua da. Tarteka deskonektatzen duzu?

Biziarekin lan egiteak lotura ekartzen du eta ardura anitz. Guk familian lan egiten dugunez posible dugu lan gutiago dugunean pixka bat libratzea.

Baserritik kanpo, asteburu batean...

Irati bezalako oihan eta mendietan ibili, tokiak ikusi... konpainia onean bazkaldu eta besta pixka bat egin!

Amets bat?

Hego Ameriketako itzulia egitea.

1951tik
Casa Cambra
 lantzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

Merkealdia

BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER LEHIAKETAN SARITUTAKO LANAK (A, B ETA C MAILAK)



A MAILA, 1. SARIA
LAIA ERKIZIA FONT
BERAKO BERTSOLARIA

Beldur ikusezina

Doinua: Ikusi nuenean

Gure beldur haundia da ikusezina, ta zer gertatuko zen gu berdin bagina.

Ni ezin naiz ateri etxe honetatik birus txikia entzun ez dizut beldurrik.



A MAILA, 2. SARIA
ELAIA BOAN MANZIDOR
BERAKO BERTSOLARIA

Lekak patatekin

Doinua: Ikusi nuenean

Gosea dut bai aunitz eta ez dakit zer egin kazula ideki dut trapu zahar batekin ez daude makarroia txanpinonarekin orduan zer jango dut lekak patatakin.



B MAILA, 1. SARIA
LOITZATE GOÑI ELORTZA
BERAKO BERTSOLARIA

Zumeta

Doinua: Aita asmo hartu det

Orain etorri zaigu sasoi bat astuna koloreak gehien behar dituguna Euskal Herrian zinen hainen ezaguna eta utzi diguzu zulo beltz iluna koadroan aditzen da zure oihartzuna.

Paletaren gainean pazientziar jarri hori laranja urdin berde more gorri irudimen askean herria oinarri oinarrien gainean sorturiko herri koloreen zeruan Zumeta zer berri.



B MAILA, 2. SARIA
EKAI MADARIAGA APAOLAZA
ARANTZAKO BERTSOLARIA

Hau panorama

Doinua: Gizona da zoroa

Azken aldian dabil birus bat gaiztoa bakunarrik ezean oraindik txargoa Estatu Batuetan ze soluzioa hurrengo baterako ez eman botoa

Lejia edateko zeini okurritu birusaren komeriz hil gehiago ditu ño jendea pozoitzen nahi luke segitu ezin baita munduan bakarrik kabitu.



B MAILA, AIPAMEN BEREZIA
KATTIN MADARIAGA APAOLAZA
ARANTZAKO BERTSOLARIA

Bullinga

Doinua: Itsasoari begira

Taberna, frontoi, igerileku ta belardi loretsuak. Ostatutako pintxo horiek dira nahiko ospetsuak. Zuhaitz sendoak ta laino grisak, edo lore usaintsuak. Ikastola bat, lagun kuadrillak ta etxe koloretsuak. Dena berria izango dugu, baina iseka bertsuak.

Ikaskide ohi zakar haiekin ez nuen ongi pasatzen. Isekengatik hasi zitzaidan autoestima erortzen. Amaren ustez ethez aldatuz hasi behar dut gozatzen. Begira, ama, ni hasiko naiz gauzatxo batzuk azaltzen: Bullinga ezta inola ere eskolarekin aldatzen.

IRAKURLEAK MINTZO ETA BOTA BERTSOA

Norbaitek *Irakurleak Mintzo* atalean gutunen bat idatzi nahi badu edo *Bota Bertsoa* atalean bertso pare bat idatzi nahi baditu, hauxe du aukera. Gutunen kasuan, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. Gutunarekin eta bertsoekin batera bidali behar dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa, eta bertsoen kasuan, egilearen argazkia. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58



C MAILA, 1. SARIA
LIDE IGOA FONTAN
LESAKAKO BERTSOLARIA

Bi gorputz bat eginda

Doinua: Zure bular politikak

Bi gorputz bat eginda bustita jadanik bikotea nor nuen ez dakit oraindik nork errango lidake hain gutti emanik gau hark truke hainbertze emango zidanik.

Bi gorputz elkartuta sortuz bi marratxo 9 hilabetez haziz mantso-mantso nik ere ez badakit zer pasa zen atzo nola errango diot nor duen aitatxo.

Falta badituz ere hontan zenbait gako nahiz naizen gizarteko rol denen kontrako naiz ez naizen izango bertzeen gisako laztana maitasunik ez zaizu faltako.

Berak ez du aitarik ama du bakarrik tentazioz zure amak jan al du sagarrik? entzun arren kalean ez egin negarrik bik batzutan ez dute bertze bat beharrik.



C MAILA, 2. SARIA
IRATXE MUXIKA KARRION
LESAKAKO BERTSOLARIA

Arranoko erregina

Doinua: Esplikatzera noa kontuak

Ogia daukat nik oinarrian gainean bi esparrago hamaika bat kilo inguruko piper bero bat gorago perrexil salda goitik behera bustita nago zeharo polit-polita ipini naute ta irteteko prest nago.

Tortilla bat dut nik bizilagun maitasun osoz egina ezkeraldean dotore zaude barazki krema zamina nahiz eta duzun zuk baratzean sortu den kalabazina ni izango naiz ortziral hontan arranoko erregina.

Zazpiak dira hastera goaz ostatura ireki da 10 bat gazte ikusi dituz goretuta urrutira platerarekin irribarretsu gerturatzan ari dira parean dituz bi aho eta lau begi handi begira.

Irabazlea azkenean ni sentiaraziz zirrara estu heldu dit aho beltzerantz bukaera heldu da jada ezta agur bat ene lagunak hau geroarteko bat da aste bat barru berriro denok hemen elkartuko gara.

IRAKURLEAK MINTZO

Bortziritako Emakumearen Memoriaren Baratzea

MENTXU PEÑA LIZARAZU

Urteurrena izan dugu; hain zuzen ere inauguratu genuela hiru urte bete baititu hilaren 18an. Aurtengo egoera berezia dugula eta, hauxe idaztea bururatu zait, besterik ez bada ere, geure buruari berrikusarazteko baratzearen izatearen arrazoia.

Emakumea eta lurra emakumea eta baratzea emakumea eta gizadia ez dira kasualitatea. Ezta emakumearentzat hain garrantzitsua izatea ere.

Boterearentzat gutizia, izan da emakumea, zein baratzea, ez baitu alferrik aitzinera atera gizadia gizaldiz gizaldi.

Horretaz ohartu ziren arte emakumea boteretsua zen, ohartu orduko hasi ziren ehizaldiak.

Ohartu ziren, bai Lur komunaletan lan eginez, eta komunitatean biziz, emakumea zela medio egiten zutela aitzinera.

Atzo eta baita oraindik gaurko emakume anitz ere, izan dira eta dira sarraskituak, gogor jipoituak, bortxatuak, erailak, emakumeek landu eta lantzen dituzten lurren jabetza lortu nahian.

Horregatik, atzo eta gaurko emakume guztiak aintzat hartuz, eta omena eskainiz dugu Arantzan Bortziritako Emakumearen

Memoriaren Baratzea. Ttikia izan arren, Bere izaera eta mezua izugarri handia baita.

Aurten bizi dugun egoera dela eta, «ospakizunik ez baina ahanzturarik ere ez».

Gogoratu emakume eta gizon! «Lurra gure ama dela eta ama gure lurra».

Lagun etor gurekin

AINARA MAIA URROZ

«Lagun etor gurekin, denok elkarrekin badugu zer egin» kantua gogora ekarri zigun Urkulluk bere ahots irmoz eta abertzalez hauteskudeganean.

Guk nahi genukeena da hori, denok elkarrekin baitugu zer egin eta; hori da abertzaleok nahiko genukeena: abertzale guztion batasuna. Guk taldeak aspaldian kantatzen zuen kantu abertzalea da, Beñat Sarasolak idatzi zuen, eta Pier Paul Berzaitzek musikatua.

Guk nahi genukeena abertzaleon batasuna da, bai, baina hori al da benetan Urkulluk nahi zuena hori kantatzean hauteskudeganean? edo bi ur artean dabilen euskalduna al dugu berori?

Alderdi abertzale guztien oinarrietako jende orok abertzaleon batasuna nahi genukeela uste dut Legebiltzarrean, baina gure politikoak ez daude prest subirautzarako eta independen-tziarako eta kateaz loturiko zakur izaten segitzea erosoago zaie, arrano beltz librea izatea baino.

Arrano beltzaren gisa izan nahi nuke, libre zeru zabalean, jende zoriontsua herri libre batean miretsiz han goitik. Denon zaindari.



Gaztea izanagatik, sari andana irabazi ditu Paula Belzunegi piano-jotzaileak. UTZITAKOIA

«Atzerrian ikasitakoa Euskal Herrian erakutsi nahi nuke»

PAULA BELZUNEGI MORENO PIANO-JOTZAILEA

Musikagintzan egindako bidean sakontzen, Basilean (Suitzan) dabil Belzunegi. Irailean piano interpretazio masterra akituta, pedagogia ikasten hasiko da musikari gaztea

N. BAZTERRIKA ELIZONDO

Musikaren erritmora eraiki du bere bizimodua «erdi Elizondokoa eta erdi Iruñekoa» den Paula Belzunegi Morenok (1996). Gazterik hasi zen pianoa jotzen eta ordutik zaletasuna eta gaitasuna garatzeko aukera izan du. Iruñetik Londresera jo zuen lehendabizi eta, goi mailako ikasketak akituta, Suitzako Musik-Akademie der Stadt Basel kontserbatorioan masterra egitea erabaki zuen. Bien bitartean, European barna egin dituen emanaldiengatik eta irabazi dituen sariengatik, etorkizun handiko piano-jotzailea dela argi erakutsi du baztandarrak. Momentuz, «ikasten eta tre-

batzen» segitu nahi du, «pedagogia masterra egin eta atzerrian ikasitakoa Euskal Herrian irakasteko».

Nondik heldu zaizu musikarekiko zaletasun hori?

Etxean musikazaleak dira. Aitaren aldetik, aitatxi Elizondoko Musika Bandako zuzendaria izan zen, zeharkako txirula jotzen zuen; amatxik, berriz, piano karrera egin zuen. Amaren aldetik, aitaxik pianoa

«ABUZTUKO KONTZERTUA AZKEN ERREZITALDIAREN AURRERAPENA DA»

eta organoa jotzen zituen eta nire ama zeharkako txirula irakaslea da. Familian musikazalez inguratuta nago.

Noiz hasi zinen pianoa jotzen ikasten?

Sei urte nituela hasi nintzen, Iruñeko Joaquin Maia musika eskolan. Betidanik izan dugu piano bat etxean, eta hurbil ikusten nuelako aukeratu nuela erranen nuke... Hasiera oso polita izan zen. Pixkanaka es-

«SARIEK INDARRA EMATEN DUTE BAINA GARRANTZITSUENA IKASITAKOA DA»

kolan ikasitakoa plazaratzen hasi ginen. Bederatzi-hamar urterekin ikasle batzuk Andoainera, Donostiara... joaten ginen emanaldiak egitera. Orduko oso oroitzapen politak ditut.

Ikasketak segitzeko Londresera joan zinen. Zergatik Londres?

Londres kulturalki punta-puntako hiria da eta bertako kontserbatorioak munduko onenatarikoak dira. Hango kontserbatorio batean sartzeko probak egiten saiatu nintzen, bi azterketa egin nituen eta horiek pasatzea lortu ondok, ez nuen aukera galdu nahi izan. Halaxe joan nintzen Londresera, Nafarroako Kutxa Fundazioaren laguntzarik esker, piano karrera ikastera.

Ez da erraza izaten proba horiek gainditzea...

Ez... Zaila da eta lan handia egin behar da, baina nahi izanez gero lor daiteke...

Hamazazpi urte besterik ez zenuen ikasketak kanpoan egitea erabaki zenuenean. Erabakia hartzea zaila izan zen?

Ez, erabakia hartzea ez zen zaila izan, gogo handia nuen eta pentsatu gabe joan nintzen. Baina han nintzela etxekoan eta ingurukoan falta izan dudarik ezin dut ukatu. Dena den, etxetik aterata asko ikasi dut.

Zer alde nabaritu zenuen Iruñetik Londresera?

Alde handia nabaritu nuen. Londres oso-oso hiri handia da. Lau urtez egon nintzen eta zati txiki bat besterik ez dut ezagutu. Kulturalki oso aberatsa da, egunero kontzertuak daude, orkestra guztiak eta piano-jotzaile onenak handik pasatzen dira...

Hasieran zer izan zen zailena?

Lehenbiziko urtean ingelesarekin zailtasunak nituen, ez da gauza bera Iruñean ikastea eta hara joatea. Azentu hori ulertzea hasieran kostatzen zitzaidan... Baina, poliki-poliki ohitu nintzen.

Orain masterra egiten ari zara Basilean (Suitzan)...

Bai, halaxe da. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzari

esker, Suitzan piano interpretazio masterra egiten ari naiz, pianoko klaseak ditut irakasle oso-oso on batekin, ganbera musika, duoa eta hemen famatua den eskola cantorumarekin antzinako musika ikasi dut...

Nolakoa da egunerokoa Suitzan?

Aste batetik bestera aldakorra da, irakasle batzuk ez direlako hemen bizi. Baina egunero joaten naiz kontserbatoriora. Kontzerturen bat dudanetan sei ordu edo gehiagoz aritzen naiz. Deus ez badut, berriz, egunean lau bat ordu pasatzen ditut.

Euskal Herriarekiko kontrastean, kultur atxikimenduan alderik sumatu duzu Basilean?

Euskal Herri osoko kulturgingizaren berri ez dut baina Elizondan eta Iruñean ez bezala, Basilean kultur ekitaldiek duten presentzia ikaragarria da. Egunero daude kontzertuak eta jende asko joaten da ikustera. Astero joaten naiz lagunekin kontzertu batzuetara.

Zer ekarpen egin dizu ikasketak etxetik kanpo gauzatzeak?

Gurasoen etxetik ateratzeak jendea ezagutzeko, kulturen berri izateko eta mundua ikusteko aukera eman dit. Akademikoki ere aberatsa izan da. Irakasleak kanpoan ibili dira eta eskola askotako pentsamenduak ezagutzen dituzte. Hori guztia jasotzea aberastan handia da. Adrian Oetiker eta Anton Kernjak irakasleei esker asko ikasi dut.

Etxean egon behar izan garen denboran, nola moldatu zara ikasketak aitzinera eramateko? Euskal Herrira bueltatu zinen?

Martxoaren 7an Elizondan kontzertu bat izan nuen eta 8an Basileara bueltatu nintzen. Koronabirusa tarteko, martxoaren 17an berriz etxera bueltatu nintzen eta klaseak etxetik segitu nituen. Ez da erraza izan, musika aurrez aurre lantzea eta pantaila bidez egitea ez baita gauza bera. Saioak hastearekin batera, ekain bukaeran berriz ere Basileara itzuli nintzen. Uda



Iruñeko Nuevo Casinon emanaldia eskainiko du Belzunegik hilaren 13an.

Euskal Herrian pasatu dut eta orain, abuztuan, berriz bueltatuko naiz. Aurten lehenago hasiko ditugu klaseak, normalean irailean hasten ditugu baina egoeragatik galdutakoa berreskuratuko dugu.

Masterra akitzeaz duzu... Zer da falta zaizuna?

Azken azterketa handia, bukaerako errezitala, irailean izanen dena. Azkena izan arren, oso garrantzitsua da. Hasieran publikorik gabe eginen genuela esan ziguten, orain, berriz, gauzakhobe daudenez ikusleak sartzeko aukera izatea espero dugu. Oso tristea da ordube-

teko kontzertu garrantzitsu bat prestatzea inor ez egoteko. **Abuztuan kontzertu bat duzu Iruñean... Zerbait aurreratuko zeniguke?**

Bai, Iruñeko Nuevo Casinon joko dut, abuztuaren 13an. Azken errezitaldi-probaren aurrerapena izanen da. Azken kontzertu hori beste birekin joko dut baina kasu honetan etortzerik izanen ez dutenez, egokitu egingen dut.

Gaztea izan arren, dagoeneko baduzu eskarmentua. Kontzertuei esker, hainbat toki ezagutzeko aukera izan duzu...

Europan ibili naiz, herrialde nahiko ezagutzeko aukera izan dut: Portugal, Ingalaterra, Italia, Polonia, Alemania... Espainiar estatuan ere hiri asko ezagutu ditut.

Baduzu egunen edo emanaldiren bat bereziki oroimenean gordeko duzuna?

Nire lehen emanaldia, Iruñean izan zena, Pablo Sarasate Goi mailako kontserbatorioan, 2013ko apirilaren 10ean.

Sari andana ere irabazi dituzu. Nola bizi dituzu sarietarako? Zer balio dute sarietarako zuretzat?

Bai, sari batzuk bai irabazi ditut. Donostiakoak, Andoaingoak... Sarietarako egiteko eta gehiago prestatzeko bultzada ematen dute eta atea irekitzen dituzte. Dena den, prozesuan ikasitakoak balio handiagoa du.

Zergatik merezi du lan hori guztia egiteak?

Oholtzara igo eta publikoaren aurrean jotzeko aukera izatea esperientzia berezia da. Musikan hori gabe aritzea ez litzateke gauza bera izanen eta horretarako ezinbestekoa da gogotik lan egitea.

Aurrera begira, zein da zure asmoa?

Gehiago ikastea gustatuko litzaidake. Gero Euskal Herrira bueltatu eta atzerrian ikasitakoa erakustea. Irakaskuntzan dut begia, irailean master pedagogikoa ikasiko dut. Beste bi urtez Basilean egonen naiz, irakasle berarekin eta ondotik itzuliko naiz.

Laburrean

Zeure burua hitz gutxitan.

Langilea, lagun laguna eta bizitzaz gozatzen duena.

Kontzertu egunetan... maniarik baduzu?

Ongi prestatuta joate eta emanaldiaren aurretik poliki errepasatzea.

Piano-jotzaile on batek behar dituen ezaugarriak?

Ikasia, talentuduna eta presioa eramateko gaitasuna. Irakasle onak izatea eta

familiaren babesa edukitzea ere garrantzitsua da.

Piano jotzailearen bat?

Socolov, Krystian Zimerman...

Emanaldia eskaintzeko toki bat?

Baluartan jotzea ametsa egia bihurtzea litzateke.

Musika ez den zaletasunik?

Kirola egitea, hizkuntzak ikastea, irakurtzea...

Irakurri duzun azken liburua?

El siglo de las luces.

Uda lasaia eta ezohikoa

Ezohiko udan ezohiko planak egin behar izan dituzte herritar aunitzek. Horieta hamar lagunentzako bildu dituzte TIPI-TTAPAK aldizkari honetan eta gehixeago edo guttixeago denek aldatu behar izan dute udako ohiko martxa

N. BAZTERRIKA / G. PIKABEA

Herrietako bestetan bete-betean gozatzeko tenorea izan behar luke, bidaiatzea maite dutenentzat orain harat eta gero honat joateko garaia, musikari, bertsolari, herri-kirolari edo pilotarientzat plazaz plaza ibiltzeko sasoia, Saharako zein Errusiako haurrak etxean hartzeko momentua edo turistak erakartzeko hila-beterik onenak. Halaxe izan dira abuztuko asteak orain arte, eta zuzen bidean hala izanen lirarteke aurten ere, Co-

vid-19ak dena astindu eta goitik beheiti aldarazi izan ez balu.

Ezohiko uda izaten ari da aurtengoa, berezia. Eta hari horri tiraka, modu batera edo bertzera, uda garaia bertzela irudikatua zuten eta koronabirusa tarteko, martxa hori alde batera utzi behar izan duten eskualdeko hamar lagunengana jo du TIPI-TTAPAK. **Ander Fuentes Mujika Itturri** (Zubieta, 1979) bertsolariari «inguruko bertso saio guztiak bertan behera» gelditu zaizkio, eta «familiar bidaiatzeko as-

moa» ere baztertu behar izan dute. **Andrea De Rueda Goñik** (Doneztebe, 2000) aitortu digunez, Doneztebeko Erreka Dantza Taldea emanaldirik gabe eta taldearen urteurrena ospatu ezinik gelditu da. **Begoña Leonet Claver** (Arano, 1969) eta **Itziar Mitxelena Gamiok** (Arantza, 1991) atzerriara bidaiatzea maite dute baina aurten etxetik hurbil bilatu dute gozatzeko tartea. **Lupe Zubeldia Telletxea** (Arizkun, 1971) ilusioz zegoen Sahararik ekartzeko zuen mutikoa

etxean hartzeko, baina ametsa zapuztu zaio. **Itxaso Onsalo Martinikorena** (Areso, 1989) herri kirolariak eta **Jon Olai-zola Otxoteko** (Lesaka, 1996) pilotariak ezin izan dute aitzineko urteetan bezala plazaz plaza ibili. **Mikel Salaberri Elizetxe** (Doneztebe, 1977) musikariari normalean herriz herriko saioekin bete izaten zuten agenda hutsik gelditu zaio eta **Felipe Oyarzabal Ibarrrak** (Elizondo, 1976) Amaiurko errotan «irabazirik gabe, mantentzeko bakarririk» lanean ari direla dio. **Arantxa Blanco Gardek** (Urdazubi, 1985) ere «aunitz nabaritu» du ezohiko egoera honen eragina: udaleku eta kirol hitzordu aunitz bertan behera utzi behar izan dituzte, eta egin dituztenak, Urdazubiko udalekua konparazio batera, neurri zorrotzak hartuta atera dute aitzinera.

Halakoxea izaten ari da urtea, berezia, eta udan ere ez da inolr libratu.



Erreka Dantza Taldeko dantzaria da Andrea de Rueda.

«Segur aski hamargarren urteurrena hamaikagarrenean ospatuko dugu»

Dantzariak emanaldirik eta plazaz plaza dantzatzeko aukerarik gabe utzi ditu itxialdiak. Erreka Dantza Taldearentzat «urte berezia» zen aurtengoa eta taldekide den Andrea de Rueda Goñik (Doneztebe, 2000) kontatu digunez, «hamargarren urteurren ekitaldia ilusio handiz» prestatzen ari zirela ailegatu zitzairen osasun alarma-egoera. Orduetik ez dira beriz elkartu eta «gogoa badugun arren», ez dira entseguekin hasi. Tenore honetan, doneztebarrak besta ttikiei begira egon ohi dira eta «ospatzeko modurik izanez gero, akaso, dantza taldekoek emanaldi ttikiren bat prestatuko dugu... nork dakil!». Urteurrenaren harira, beriz, «deus» adostu ez duten arren, doneztebar gaztearen ustez «saio berezi hori hurrengo urterako» utzi beharko dute: «hamaikagarrena izanen da!» dio umoretsu.



Itziar Mitxelena Gamiok aunitz gustatzen zaio bidaiatzea; irudian Ghanan.

«Bidaiatzeko bertzelako moduak badira, adibidez, liburu bat hartzea»

Frantzia, Espainia, Portugal, Polonia, Txekiar Errepublika, Grezia, Kanada, Thailandia, Maroko, Kuba, Ghana... Bisitatutako tokien zerrenda luzea du Itziar Mitxelenak (Arantza, 1991), maite duelako «jende eta bizi estiloak ezagutzea, horrek geure burua eta bizitza aberasteko balio duelako». Ezagutuko lituzkeen tokiak ere aunitz ditu eta bereziki Afrika du begiz joa, «afrikarrangandik badugu-eta zer ikasia». Baina uda honetan, «bertze modu batera» gozaten ari da, «etxetik hurbil»: «Enaren Bidea egin dut Pirinioetan eta Arcachon inguruan egun batzuk pasako ditut». Agerian utzi du urrutira joan gabe ere ederki moldatzen dela, «baratzean, mendian, familian, lagunekin, Arantzako terrazetan... zoragarri» baitabil. Gainera, «bidaiatzeko bertzelako moduak» badirela dio: «adibidez, liburu bat esku artean izatea!».



Bazterrak doinuz alaituz hainbat plazatan ibilia da Mikel Salaberri Elizetxe.

«Hemengo jendeak plaza maite du eta soinujoleak noizbait bueltatuko gara»

Eskualdean gutti izanen dira Mikel Salaberriren (Doneztebe, 1977) doinuekin dantzatu edo kantatu ez dutenak, 16 urterekin herriko inauterietan akordeoia jotzen hasi zenetik ehunka plaza zapaldu baititu. Atera kontuak, «musikatik bakarrik bizi nintzen garaian, abuztuko 31 egunetatik 27tan jotzen nuen». Baina uda honetako egutegia hutsik gelditua du: «martxorako hartuak nituen 20 bat saio, bortz kinto besta eta urtero azken momentuan lotzen nituen bertze horrenbertze saio edo gehiago gabe». Aitortu digunez, «pena» sentitzen du eta uda «lasaia, aspergarria eta diferentea» izaten ari omen da. Halere, bilatu du tarte libreak betetzeko bidea: «oporraldi gehiago egiten ari naiz, autokarabana eta bizikleta hartu eta Alpeetara edo Pirinioetara». Baina argi du, «buelatuko garela, eskualdean plaza maite dugulako».



Itxaso Onsalo Martinikorena aresoarra trontzan.

«Plazara atera eta erakustaldiak egiteko gogoz gaude»


«Aurtizko festetan izandako solasaldi baten ondotik» 22-23 urterekin hasi zen herri kiroletan Itxaso Onsalo (Areso, 1989), bere hitzetan, «berandu», baina probatu zuenetik hari «lotuta» bizi da, «asko gustatzen zait». Trontza du maiteena eta horretan egin da ezagun, «txapelketa asko jokatu eta txapel mordoxka irabaziz», baina are nahiago ditu udako erakustaldiak: «herriko festetara joan eta bertakoekin egotea, erakustaldia egin eta han otordua egitea...». Halaxe pasatu izan ditu azken urteotako udak, batetik bestera trontza edo aizkora eskuan: «neska gutxi garen ez erakustaldi asko izaten ditugu». Aurtengoa, ordea, ezohikoa izaten ari da, nahiz eta «pozik» dagoen «erakustaldi gutxi batzuk» atera zaizkielako. Aitortu digunez «plazara ateratzeko gogoz» dago, plazak «entrenatzeko motibazio iturri handia» direlako.



Egoera bere onera etortzean Nepal eta Japonia bisitatu nahi litzuzke.

«Egoera honetan hemengo tokiak gozatzea aholkatuko nuke»

Bidaiazalea den arren, aurtengo udan herrian eta inguruan ibiliko da Begoña Leonet Claver (Arano, 1969). Izatez, aranoarrantzat uda ez da bidaiatzeko tenore onena, «jende masifikazioagatik» baina «urteko beste sasoi batean ezin denean berdin antolatzen naiz». Aurten, ordea, nahiago du etxean gelditu: «egoera ikusita ez dut pentsatzeko tarterik ere hartu...». Horren ordez, lanean pasatuko du uda: «astelehenetik ostiralera enpresa bateko finantziario departamentuan eta aste bukaeretan Donostiako onkologikoan ari naiz». Tarte libreetan «ahal den neurrian, familia eta lagunekin egoteko, kirola egiteko, zinemara joateko, kontzertuak ikusteko, irakurtzeko...» aprobetxatuko du eta ingurukoei ere horixe gomendatu die: «hemengo toki ikaragarriak ezagutzeko gozatzeko esanen nieke».



Ander Fuentes Iturriren ustez «bertsolariak plaza behar du».

«Herriko bertsolariak inprobisatutako saioak izanen dira»

Gustuko dituen familiako bidaien eta azken urteetan bertso eskolakoekin bisitatzeko dituen zenbait plazan ordezkioak bilatuz pasatuko du aurtengo uda Ander Fuentes Mujika Iturrin (Zubietta, 1979). Familian bidaiatzeko zuten asmoa utzita, egoera honetan, «bertatik bertara» ibili beharko dutelakoan dago: «etxe inguruan ditugun bazterrak ezagutzeko aukera polita dugu...». Eta batetik bestera, horren gustuko dituen bertsoek bere toki izanen dutela iruditzen zaio. Izan ere, orain «plazetan saioak egin daitezke, eta zenbait herritan antolatzen ari dira, neurri guztiak hartuta...». Halakorik antolatzen ez den herrietan «herriko bertsolariak» lekukoa hartu eta «inprobisatutako saioak izanen direla» uste du. Edozein modutan, pantailatan baino erosoago sentituko dira, «bertsolariak plaza behar duelako».



Lupe Zubeldia Telletxea arizkundarra Saharako haurrekin.

«Pena da Saharako haurra etxean hartzeko aukerarik ez izatea»

«Huts handia» sentitzen du Lupe Zubeldiak (Arizkun, 1971) uda honetan. Izan ere, Saharako mutiko bat etxean hartzekoa zuen, baina ezohiko egoera tarteko, ezin izan du. Saharaztan elkarte-kidea da eta behin baino gehiagotan hartu izan ditu sahararrak: «2011n, alabak horren ilusioa zuelako, lehenbizikoz ekarri genuen. Bizpahiru urtez neska bat ekarri genuen eta gerora, Bakelekuetatik bertze hiru neska asteburuetan. Aurten mutiko bat etortzekoa zen eta berarekin egiteko hainbertze plan pentsatuak genituen. Baina ezinezkoa izan da, eta pena da». Horren faltan, «lanean, beti bezala» doa bere uda. Baina argi du «arras esperientzia polita» dela eta horregatik egin dio «jendeari animatzeko» deia. «Haiengandik ikasteko aunitz» dugulakoan dago: «gutiagorekin gu baino aise kontentuen bizi dira».



Jon Olaizolak badu frontoira laster bueltatzeko esperantza.

«Pilotaren mundu ttikian birusak utzi duen ondorioa handia izan da»

Herrian eman zituen lehenbiziko pilotakadak Jon Olaizola Otxotekok (Lesaka, 1996). Gustua hartuta, «Arkupetik Bortziriak pilota elkartera eta hortik Huartera» jo zuen. Gaur egun, bertako kide da eta lanarekin tartekatuz, eusten dio txapel andana janzteko bide eman dion zaletasunari. Herriko bestetan, erraterako, partidaz partida ibiltzen da: «astean hiru bat izaten ditugu...Lesakan, Arantzan eta Aurtitzen, erraterako, maiz izan naiz». Bestetan ez ezik, txapelketa batzuetan ere segitzen du: «Zizurkoa, adibidez, martxoan hasten da... posible bada parte hartuko dut». Esku pilotarena «mundu ttikia» izanik, birusak «eragin handia» utzi duelakoan dago lesakarra, eta hori okertu ez dadin, «pilotariak eta zaleak frontoira bueltatzea» beharrezko ikusten du: «ea laster dena bere onera bueltatzen den...».



Orain 10 urte hasi zen Amaiurko errota lanean Felipe Oyarzabal. EITB

«Aurten errota irekita mantentzeko lan eginen dugu, irabazirik gabe»

Sorterrira itzultzea zuten amets eta horri tiraka, orain hamar bat urte lruñetik Baztanera etorri ziren Felipe Oyarzabal (Elizondo, 1976) eta bere emaztea. Amaiurko errota alokatu zuten eta ordutik errota eta herria ezagutzera emateko bisita gidatuak, talo tailerrak, lotarako tokia... eskaintzen dute. Urtean «guztira 8.000 bat bisitari» izaten dituzte: «ikasturtean zehar eskoletatik etortzen dira» baina uda da «jende gehien» ibiltzen den tenorea: «ezin izaten diogu etortzen den jende guztiari zerbitzua eman». Aurten egoera bertzelakoa da: «eskoletako irteerarik ez dugu izan, ezta udan jubilatuen autobusik ere. Lehen garai honetarako 100 bisita edo egiten genituen, orain 40 bat eta etortzen direnen artean kezka sumatzen da. Aurten mantentzeko bakarrik lan eginen dugu, irabazirik gabe».



Arantxa Blanco Garde urdazubiarrak kirola du afizio eta ofizio.

«Kontent baina aldi berean erne aritu gara kirol udalekuetan begirale»

Kirolari lotutako eskolaz kanpoko ekintzak, hitzorduak eta udalekuak antolatzen dituen enpresa batean dihardu Arantxa Blancok (Urdazubi, 1985) eta Covid-19aren eragina «aunitz sumatu» dute, «martxotik ekainera erabat geldirik» egoteraino. Berriz hasiak badira ere, ez dira ohi bezala ari; «udaleku batzuk bertan behera» utzi dituzte, eta «urrian egin nahi dugun Urdazubiko kontrabandisten lasterketa ere airean» omen dago. Egin duten kirol udalekuetako bat Urdazubikoa izan da eta «arras kontent» dago «lehenbizikoz antolatu eta 28 haur ibili direlako». Pozik baina «erne» aritu da begirale: «taldeka banatuz, kanpoan eta tartea mantentzeko jarduerak eginez, maskarak erabiliz, garbitasuna zainduz, materiala ongi desinfektatuz...». Halako neurriek egoera «zaildu» arren, «ondoko urteetan segitzea espero dugu».

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Bi usadio daude etorkizuneko forma adierazteko. Mendebaldean aditzaren partizipioari **-KO** edo **-GO** gehituz, eta ekialdean, eta tartean gure eskualdean, **-EN** gehituz. Biak dira zuzenak, baina nahasi gabe.

-KO edo **-GO** (mendebaldean).

Amaieraren arabera, bat edo bertzea erabiltzen da.

-Lagunduko, etorriko, erosiko, sartuko, bazkalduko...

-Baina eskualdetik kanpo, partizipioa **-N** letraz bukatzen bada,

-GO forma hartzen du: jango, irtengo, esango...

-Eta **-L** letraz amaitzen bada, **-KO** nahiz **-GO** biak dira zilegi: hilko/hilgo...

-EN (Erne! Gure eskualdean hau erabiltzen da)

Ekialdeko euskalkietan, eta gure eskualdean, **-N** edo **-L** letraz amaituriko aditzekin **-EN** erabili ohi da geroaldia adierazteko: hilen, izanen, jakinen, esanen, erranen...

ERRANEN eta **ESANGO** parekoak dira. Gure eskualdeko hainbat herri **ERRAN** aditza erabiltzen da eta ondorioz, erabat baztertzekoa da ***ERRANGO** forma, gure eskualdean **ERRANEN/ESANEN** forma erabili ohi ditugulako.

Beraz, kontuan izan: **ESAN** aditzarekin geroaldirako **ESANGO** eta **ESANEN** (azken adibide hori eskualdeko herri batzuetan erabilia da) biak zilegi badira ere, **ERRAN** aditzarekin **ERRANEN** da zuzena den bakarra.



ERRANEN/ESANEN

~~ERRANGO~~

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...
Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

Zein da zuzena?

***Esan zaitut** edo **esan dizut?**

Aipatutako adieren artean **esan/erran dizut** da zuzena, **esan/erran** aditza pertsona bati dagokionean, NOR-NORI-NORK motako laguntzailearekin jokatu behar dugulako:

***Behin eta berriz esan/erran zaitugu hori ez dela zuzena.**



(1) Behin eta berriz **esan/erran dizugu** hori ez dela zuzena.



NORI **esan/erran** zehazten ez denean bakarrik NOR-NORK motako laguntzailearekin jokatu dugu:

(2) Ahoz gora **esan/erran** dugun arren ez duzu aditu.



Bataren eta bertzearen arteko aldea argia da. Izan ere, (1) multzoko aditzetan nori **esan/erran** zehazten den heinean, (2) multzoan ez da adierazten, eta hala egitekotan, NOR-NORI-NORK laguntzailea behar da:

***Ahoz gora esan/erran zaitugun arren ez duzu aditu.**



Ahoz gora **esan/erran** dizugun arren ez duzu aditu.



Itxi behar izan dutenei guttiago kobratuko zaie

Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak 18.000 euroko laguntza emanen die saltoki eta profesionalei

TTIPI-TTAPA

Joan den ekainaren 9an egin-dako bilkuran, Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateko Juntak aho batez erabaki zuen koronabirusak eragindako pandemiaren ondorioz legez itxita egon diren saltoki, establezimendu eta profesional guztiei dirulaguntzak ematea. Guztira, Mankomunitateak emandako dirulaguntzak 18.000 euro ingurukoak izan dira.

Laguntza horiek tasak kobratzean aplikatuko dira, ko-

bratu beharreko zenbatekoa murriztuz, eta establezimenduak itxita egon diren denborearen arabera, proportzionalak, izanen dira.

Neurri horrekin, Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak babesa eman nahi dio tokiko merkataritzari, eta, ahal duen neurrian, ekonomia suspertzen lagundu. «Gure saltokiekin bat eginez eta haien esloganean oinarrituta, *Herriak bizirik, eta herriak garbi*», dio oharrean mankomunitateak.

Gazteen bajeetan jarduerak gelditzeko agindu du Nafarroako Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 17ko 35/2020 Foru Aginduarekin, Nafarroako Osasun kontseilariak erkidegoko aisialdiko etxabeetan edo gazteen bajeetan jarduerak guztiak gelditzeko agindu du. Hortaz, bertze aginduren bat eman bizkitartean gazteen bajeak ez dira irekitzen ahal-

ko. Baztango Udalak aitzinetik zerrendaturik dituen gazteen bajeetan oharra paratu du. Covid-19ak sortutako egoera nahasi honetan osasun agintarien erranak betetzearen garrantzia ere nabarmendu nahi du udalak. Gaeko lokalek ere 02:00etan itxi beharko dituzte ateak.



MAITANE MARITORENA, JM ONDIKOL ETA UTZITAKOAK

Baztandarren Biltzarrari keinua

Ospakizun handirik ez izanagatik, hamabortz herrietan Baztandarren Biltzarra oroitu zuten. Baserritar jantziak balkoian zintzilikatu zituzten batzuek, soinean zeramatzaten bertzeek eta musika, bazkaria, joaldunak... izan zituzten gozagarri.



F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK
· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA



Arduo Mila esker gurekin bat egiteagatik!
arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136



Goieko INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK
DESIN BERA
DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMEDUAK
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA



Amak taldearen doinuarekin dantzaria eta Shakti Olaizola zirku konpainiarekin jendea gozaten Altzateko Plazan, 'Uda Bizia' egitarauko bi emanalditan. UTZITAKO ARGAZKIAK

'Ez besten' ondotik ere ekitaldiz betea dator abuztua

Mugaldekoak Band eta Old School Funky Family taldeen eta Afrika Bibang abeslariaren kontzertuak datozen larunbatetan

TTIPI-TTAPA

Txupinazorik ez dute botako eta besta ofizialik ez dute ospatuko, baina besten nolabaiteko seinalea bada herrian uztail hondarreko eta abuztu hasierako egunotan: txirringularitza saria, Erabatera taldearen musika kontzertua, profesionalen esku pilota jaialdia, su-artifizialak... Abuztuaren 2an, igande eguerdian, duela bi urte lehen suzuria pizteko aukera izan zuten ahantzien oroimenez lore-eskaintza ere egitekoa dute.

Uztailean, aire libreko zine-marekin, musika hitzordu

bikoitzarekin eta zirkuarekin abiatu eta abuztuan segida izanen du *Uda Bizia* egitarauak eta datozen hiru larunbatetan musika doinuak izanen dira Altzateko plazan.

Abuztuaren 8an Mugaldekoak Band taldea (Raul Garcia, Beñardo Goietxe, Xabi Perez Bull eta Mattin Arbelaitz), 15ean Old School Funky Family (joan den azaroan Katakun jo zuen Baionako afro-funk taldea) eta 22an Afrika Bibang, guraso afrikarrak dituen Algortako abeslaria igoko dira oholtzara. Emanaldi guztiak 19:00etan izanen dira.



Mugaldekoak Band taldeak kontzertua emanen du larunbat honetan. MUGALDEKOA

Abuztuaren 30ean, azkenik, Sun magoak *Bat, 2, hiru... magia!* ikuskizuna eskainiko du, ordu berean.

Segurtasun neurriak

Ekitaldi hauetan guztietan, sarrera doan izanen da eta segurtasun neurri zorrotzak bete beharko dira. Maskara paratzea derrigorrezkoa izanen da, bertze abisurik ez den bitartean. Aulkiak bata bertzearengatik metro eta erdira kokatuak izanen dira, baita

lehenago desinfektatuak ere. Elkarrekin bizi diren unitate familiarren kasuan bata bertzearen ondoan eseri ahalko dira eta edukiera mugatua izanen da. Osasun egoeraren arabera, ekitaldi hauek aldatu izaten ahal dituzte. Beterie, osasunak eragindako araudia betetzea izanen da lehentasuna. Ekitaldiek aldatu izanez gero, www.berakoagenda.eus web orrian edo horren sare sozialetan jakinaraziko dute.

Astelehenetik ortziralerara: 07:15etik aitzinera

LABE ZAR

Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera

948 631 076 • BERA

xuga

tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

Anterola

Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA • GASA KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa

629 449 602

Auzoa GO!

Etxez etxeko zerbitzua BERAn eta LESAKAN

ESKAERAK: www.auzoago.com • T. 948 631 509

Alberto RETEGI

abokatuak

© 948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

JAIONE - LOXOTEGIA

Etxean egindako produktuak

948 630 786 • Altzate, 21 • BERA



Tantirumairu dantza taldekoak entsegu batean.

«Hiru dantza talderen emanaldiekin osatuko dugu 'Puxkak' ikuskizuna»

TANTIRUMAIRU DANTZA TALDEA

Egun berezia izanen da abuztuaren 21a Tantirumairu dantza taldekoentzat. Martxoaz gozotik ez dute jendaurrean dantzatzeko aukerarik izan eta orduan igoko dira berriz ere oholtzara. Lesakako plaza izanen da egun berezi horren lekuko. *Puxkak* ikuskizuna eskainiko dute Led Silhouette eta Unainuna dantza taldeekin batera eta nabari zaie gogotsu daudela.

Hilabete arraroak izan dira dantza taldekoentzat. Sanferminetako emanaldirik ere ez dute izan: «ohitura genuen txupinazoa ikusi, trago bat hartu eta lasterka bazkaltzera joateko, dena prestatzeko goiz gelditzen baikinen. Aitzineko asteko entsegu eta urduritasunen falta ere sumatu dugu». Hasi dira, ordea, pixkanaka normaltasunera bueltatzen. Abuztuaren 21eko emanaldirako entseguak egiteko «normal» elkartzan hasiak dira dagoneko, baina honaraino iritsi arteko bidea ere ezohikoa izan dela argitu dute: «hau dena hasi zenean pentsatzen genuen motza izanen zela eta bideo batzuk genituen gure kabuz entseatzeko, baina ez genuen aunitzik egiten». Egoera luzatzen ari zela ikusita irakasleak saioak bideo bidez egitea proposatu omen zien «eta astean entsegu bat

egiten genuen. Ongi moldatzen ginen, baina bukaeran aurrez aurreko entseguen falta sumatzen genuen».

Amateur eta profesionalak elkarrekin

Puxkak emanaldia izanen da egindako lanaren emaitza eta saio berezia izanen dela aitzineratu dute: «Led Silhouette, Unainuna eta Tantirumairu dantza taldeko helduen taldea elkartzeko gara». Ez hori bakarrik, herriko dantzari amateur eta profesionalak elkartuko gara oholtzan». Ohiko estilotik kanpo ariko dira Tantirumairukoak: «euskal dantza eta garaikidearen arteko nahasketa eskainiko dugu».

Denera hamalau dantzari igoko dira oholtzara: «Tantirumairuko hamar eta beste bi emanaldietan bakoitzean bi dantzari». Dena den, azaldu dute ez direla elkarrekin dantzan arituko: «hiru emanaldi desberdin dira, elkarrekiko independenteak eta bakoitzak bere istorioa izanen du. Hortik heldu da ikuskizunaren izena, *Puxkak*».

Udan momentuz ez omen dute bertze emanaldirik aurreikusten, baina agenda betetzeko ilusioa badute: «agian jendea gustatu eta bertze nonbaitetik deituko dugu».



UTZITAKOIA

Pettiren kontzertua Udako Zikloa hasteko

Sorginxulo Lesakako kultur bilguneak udalaren laguntzarekin antolatuta, Udako zikloa abiatu zen uztailaren 19an Pettik Plaza Zaharrean eman zuen kontzertuarekin. Segurtasun neurriak zorrotz betez 300 bat entzule bildu ziren Berako artistaren musikaz eta ahotsaz gozatzera.

'Endara Bizirik!' kamisetak eta banderak salgai

Auzoberri inguruan egin nahi duten parke eolikoaren kontra lanean segitzen du Endara Bizirik plataformak. Berriki kamisetak (beltzak 15 euro eta zuriak 12 euro) eta banderak (5 euro) atera dituzte eta Telletxea eta Kattagorria dendetan salgai jarri dituzte,

Udako Kultur Zikloko hainbat ekitaldi abuztuaz

Puxkak ikuskizunaz gain, hilaren 7an, Altxorraren Bila kulturala; 13an, *Egur taupadak* txotxongilo antzerkia; 23an, Ameli ipuin-kontalaria; 28an, bertso saioa Xabier Silveira eta Unai Iturriagarekin eta 30ean, Hurih bikotearen kontzertua izanen dira.

IRU-BIDE
OSTATU · JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Hemen erabili
DenokBat
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

USOA
Nekazari kooperatiba
ORAIN GASOLINA ERE
T. 948 635 214 ETXALAR

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



Taldetxoetako bat udalekuetan. AIMAR IPARRAGIRRE

Segurtasun neurri bereziekin gauzatu dira udaleku idekiak

Lehen Hezkuntzako hamalau ikasleak eta Haur Hezkuntzako bederatiak bi eraikinetan egon dira

IRUNE ELIZAGOIEN

Elene Alzuguren, Martxel Larraza eta Aimar Iparragirre gazteekin uztailearen 13tik abuztuaren 7ra 23 haurrek udaleku irekiez gozatzeko aukera izan dute.

Lehen Hezkuntzako hamalau ikasleak eta Haur hezkuntzako bederatiak ez dira eraikin berean egon, segurtasun neurri zorrotzak hobeki mantentzeko. Aurtengo egoerarekin, udalekuak kanpoan egiteko ekintzetara zuzenduak egon dira (errekara joan, mendira, jokoak...) eta eguraldiak lagundu ez duenetan eskula-



Udalekuko ttikiak, gustura.

nak eta tailerrak egin dituzte. Neurriak neurri, ederki pasatzen ari dira uda herriko neska-mutikoak.



JOSEBA OLAGARAI

Trikotatzeko proiektuaren akabera

Uztailearen 17an, hirugarren egunarekin eman zioten akabera trikotatzeko proiektuari. Kuxina bukatzeko azken ukituak falta badira ere, laster kultur etxe azpiko bankuan egonen da. *Aske bizi* mezua idatzi dute, ekimena antolatu duten bi taldeen adostasunez: feminista taldea eta Amigurumi zaleak taldea.

Karmen Etxalarkoa ibilbidea mantentzeko auzolana egin dute

IRUNE ELIZAGOIEN

Uztailearen 18an Karmen Etxalarkoa ibilbidea mantentzeko urteko auzolana egin zen. Hamahiru lagun elkartu ziren eta arbol eroriak baztertu, desbrozadora pasatu, bidea erorita zegoen puntu batean moldatu, eroritako kartel bat berriz ere kokatu eta bosgarren puntuan egurrezko mahai bat jarri zuten. Joan den urteko irailaren 21ean, pastorala egin eta bi urteren buruan, estreinatu zen Karmen Etxalarkoa ibilbidea eta urtean behin auzolana egitea adostu zuten.



Egurrezko mahaiak jarri dute. M.OLAETXEA

Jauzena

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Zalain

JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

1a 900.000 euro gehiago gaztelaniazko hedabideetara

2019an Gobernuak 957.750 euro bideratu zituen gaztelaniazko hedabideetara eta 58.254 euskarazkoetara

TTIPI-TTAPA

2019an publizitate instituzionalean 1,3 milioi euro inbertitu zituen Nafarroako Gobernuak, Gobernu Irekiaren web atarian argitaratutakoaren arabera, eta *Diario de Navarra*, *Diario de Noticias*, *Navarra TV* eta *Cadena Ser* izan ziren onuradun nagusiak alde handiarekin. Kopuru horren %22 *Diario de Navarra*ra joan zen -284.931 euro- paperean eta edizio digitalean egindako publizitatearengatik. *Diario de Noticias*ek 193.545 euro jaso zituen, *Garak* 42.227 euro eta *Berriak* 18.325 euro.

Irratietan ere, gaztelaniazkoen aldeko joera nabarmena da. *Cadena Ser*rek, irratiei banatutako 227.544 euroetatik ia 60.000 jaso zituen, *Copek* 41.394,35 euro eta *Onda Cerok* 35.425,23. Euskarazko hedabideetan, Iruñerriko *Euskalerria Irratiak* 9.799 euro jaso zituen publizitate instituzionalean eta *Xorroxinek* 1.764 euro.

Sei telebista kateen artean *Navarra TV*ri eman zion Gobernuak publizitate gehien,

81.571 euro, telebistetan inbertitutakoaren %73. *Hamarka Telebistak* 7.675,94 euro eta *Xaloak* 6.310,56 jaso zituzten.

Hedabide digitalean, sarean dauden guztien artean bitan jarri zuen publizitatea Gobernuak: *Diario de Navarra*ren webgunean ia 20.000 euro eta *Diario de Noticias*enean 17.000 inguru. Euskarazko hedabideen webguneak agertu ere ez dira egiten zerrendan.

Tokiko hedabideetan, publizitatea egin zuen 18 hedabideen artean, gaztelaniazkoak izan ziren alde handiarekin onuradun nagusiak, CIESen audientzi-neurketen datuak kontuan hartu gabe, nahi bezala, banatuak. Audientzia handiagoa duten euskarazko aldizkari batzuk audientzia urriagoa duten gaztelaniazko berte batzuk baino publizitate gutiago jaso zuten. Gehien Lizarrako *Calle Mayorrek* hartu zuen -5.309 euro-. Euskarazkoetan gehien Sakanako *Guaixek* -4.136 euro- eta gutien Ultzamaldeko *Pulunpek* -449 euro-. TTIPI-TTAPAK 3.489 euro jaso zituen.



Duela bi urte, pilota txapelketako finalaren egunean, hartutako irudia.

Pilota Txapelketa bertan behera utzi du Ekaitza Elkartek

NEREA ALZURI

Ibilbide luzea du Ekaitza Elkartek antolatzen duen pilota txapelketa. Urtez urtez, lehenbizi kanporaketak jokatu eta herriko bestetan egin izan dute finala. Arrakasta handiko hitzordua izaten da gainera, eta azken urteotan, protagonismo osoa herriko pilota eskolan

ibiltzen diren gaztetxoek hartu izan badute ere, bere garaian ez hain gaztetxoek ere parte hartzen zuten txapelketan.

Aurten, ordea, koronabirusa tarteko, Ekaitza Elkartek txapelketa alde batera uztea erabaki du. Berezia izanen da inondik inora uda hau, ez bestarik, ez Arantza Rock...

Hitzordua hartu gabe joan daiteke herriko etxera

N. ALZURI

Jendeari aurrez aurreko arreta eskaintzen ekainaren 15ean hasi ziren herriko etxean. Gerroztik, herritarrek hitzordua hartuta izan dute bertara joateko aukera. Uztailaren 21etik, ordea, ordua hartu beharrik izan gabe, 10:00etatik 13:00eta-

ra irekiak daude herriko etxeko ateak. Hori bai, segurtasun neurriak hartzea ezinbertzekoa izan da, hala nola, maskara janztea eta tarte mantentzea.

Bertzalde, irisgarritasuna bermatzeko helburuarekin, udaletxean igogailu mekanikoa martxan paratua da.

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

GAUR EGUNERA
EGOKITUTAKO ZURGIN-LANAK

Luís Ibarra

ZURGIN-LANAK OROKORREAN
636 701 204
Salbatore karrika, 28 - ARANTZA (Na)
ibarrazurgina@gmail.com

ORBELA
SENDERISMOA ATERPETXEA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia - Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa



Bestetan mahaiaren bueltan sortu ohi den giroa falta izanen dute aurten Oizen.

Oizko bestak ere bertan behera utzi dituzte

Oraingoz, Malerrekako hamaika herritan jakinarazi dute ez dutela bestarik ospatuko

TTIPI-TTAPA

Saldiasakoak izan ziren bestak alde batera uzten lehenak eta ondotik etorri zen Doneztebe, Ituren, Elgorriaga, Beintza-Labaien, Sunbilla, Donamaria-Gaztelu, Ezkurra eta Zubieta udalen erabakiak. Eratsunen ekain erdialdera jakinarazi zuten irail hasieran egin

ohi dituzten bestak ez ospatzeko erabakia, baina lerro hauek idazterakoan ez zuen zehaztua «besten seinalerik» eginen duten ala ez. Bestak garai berean ospatu ohi dituzten Oizen ere ez dute ospakizunik izanen, udalak adierazi duenez, «ez bestarik, ezta ekitaldi berezirik ere».



TESTUA: MAIDER PETRIRENA / ARGAZKIA: JOANA HERNANDORENA

Sunbillako gaztetxoak Arizkunen

Mendi bizikletak badu segida Sunbillan. Horren seinale da joan den uztailaren 19an Arizkungo BTT proban parte hartu zuen herriko kuadrilla honen argazkia. Eguraldi beroa tarteko, ibilbidea nahiko gogorra egin zitzaizen arren, bizikleta gainean ederki gozatu zuten.



Gaztetxoak tailerrean segitzeko gogoz gelditu dira. N. REKARTE

Sormena lantzeko eskulan tailerra egin dute Donamarian

TTIPI-TTAPA

Hiru hilabetez etxean egon ondotik, Donamariako Udalak «haurrek sormena lantzeko eta gozatzeko» aukera izateko, eskulan tailerra antolatu zuen uztailerako. Horri esker, haur eta gaztetxoek 15 euro ordainduz, Iciar Mikelperizena margolariaren eskutik, euren tre-

bezia lantzeko aukera izan zuten. Segurtasun neurriak betetzeko talde txikietan banatu eta distantzia mantendu dute: «antolatzerako orduan ere hori kontuan izan genuen, eserita egoteko zerbait antolatu genuen». Tailerrak «erantzun bikaina» izan du eta «haurrak segitzeko gogoz gelditu dira».

Irailean egitekoa zuten Sunbillako BTT ibilaldirik ez

Hirugarren urtez segidan, irailaren 13an egitekoa zuten Sunbillako BTT ibilaldia baina bertan behera uztea erabaki dute. Egoera ikusita «zuhurtziaz jokatu» eta heldu den urtera arte esperatzea erabaki dute. 2021ean «indartsu» bueltatuko direla iragarri dute.



Ipar Martxa hilaren 16an Bidasoko Bide Berdean

Abuztuaren 16an, lehenbiziko Ipar Martxa maratoia eginen dute Bidasoko Bide Berdean. Parte-hartzaileek, Doneztebetik abiatuta, hiru proba izanen dituzte aukeran: maratoia (42.195 metro); maratoi erdia (21.097); eta promozio proba (5.000). Izen-ematea: www.herrikrosa.eus.



DONEZTEBE

Lasa eta Martiarenak irabazi dute Rallysprinta

Andoitz eta Aritz Garmendia izan ziren bigarren eta Iñaki Zozaia eta Xabier Andueza hirugarren

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Automobilismo Federazioak eta Malerreka Motorsportek antolatuta, uztailearen 18an egin zuten Malerrekako Rallysprintaren IV. edizioa. 16 kilometroko zatian lau buelta emanez, kronometratutako 64 kilometroko ibilbidea osatuko zuten 35 pilotu eta kopilotuek.

Irabazleak

Joseba Lasa eta Maitane Martiarena izan ziren *scratch*-a irabazi zutenak; Andoitz eta Aritz Garmendia bigarrenak eta Iñaki Zozaia eta Xabier An-

dueza hirugarren (lehenbizikoek eta hirugarrenek bertze sari bat ere irabazi zuten).

Horiez gain, Aitor Hoyosek eta Sergio Villarrek; Iker Askargortak eta Aitor Fernandezek; Eneritz Besgak eta Jabi Goikoetxeak; Joseba Iñarreak eta Joana Kamiruagak; eta Iker Seinek eta Migel Elizaldek ere garaikurrak lortu zituzten.

Malerreka Motorsportek parte-hatzaile, laguntzaile eta ikusleei, eskerrak eman nahi izan dizkie «izandako jarrera onagatik eta eurei esker giro ezin hobea izan genuelako rallyan».



Joseba Lasa eta Maitane Martiarena izan ziren irabazle *scratch*-ean.



UTZITAKOIA

Denboraldia akituta hurrengoari so

Doneztebe Futbol Taldeak denboraldi berezia agurtzeko eta hurrengoari begira hasteko mahai inguruan bildu eta bazkaria egin zuten ekain hondarrean. Egoerak ahalbidetzen badu behintzat, sarri denboraldia indartsu hasteko entrenatzen hasiko dira.



UTZITAKOIA

Dantzaz gozatzeko hitzorduak

Hankak eta besoak astintzeko eta dantzatuz gozatzeko hitzorduak antolatu zituen Erreka Dantza Taldeak uztailearen 17 eta 26rako. Haur, gazte eta helduek herriko dantzariekin tarte atseginez gozatzeko aukera aprobetxatu bitartean, giro ederra izan zen Bear Zana plazan.

caser
residencial

www.caserresidencial.es

Laguntza zerbitzuak

- Medikua • Farmazia
- Erizaintza • Psikologoa
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia

Ostalaritza

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuzfegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzua

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

- Animazio soziokulturala • Nutrizioa
- Podologia • Odontologia eta dentista
- Logopedia • Audioprotesista

Bestelakoak

- Ile-apainketa
- Jostuna
- Ertljo zerbitzuak-Meza
- Kanpora laguntzea
- Laguntza teknikoen kudeaketa

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

IDIAZABAL

BORDALARRREA

Gure Haragia
Nuestra Carne

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com



Kontseilaria eta Xanti Uterga Doneztebeko alkatea, erdian, Doneztebeko depositu berria. NAFARROAKO GOBERNUA

Bi milioi euro bideratuko dituzte azpiegituretarako

Tokiko Inbertsio Planaren barne, bederlatzi herritan eta Bortzirietako Mankomunitatean 21 jarduera egingen dituzte

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Baztan-Bidasoa eskualdean tokiko 21 azpiegitura hobetzeko proiektuak lagunduko ditu, 2 milioi euro bideratuz. Tokiko Inbertsio Planaren barne, bederlatzi herritan eta Bortzirietako Mankomunitatean 21 jarduera egingen dituzte.

Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Cirizak eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusi den Jesus Mari Rodriguezek Baztanen eta Donezteben egiten ari diren lanak bisitatu zituzten uztailaren 15ean, Joseba Otondo eta Xanti Uterga alkateekin batera.

Baztani dagokionez, Azpilkuetako karrikak eta Zuaztoi auzoko karrikak, uraren banaketa, saneamendua... hobetzen ari dira, gero hormigoia bota eta sare elektrikoa, argiarena eta telefonoarena kanalizatzeko. Era berean, Aritza-



Baztango alkatea eta kontseilaria.

kun auzoko baserrietarako bi bide egingo dituzte, hori eusteko 35 metroko paretarekin batera. Beartzunen, berriz, bidea pasatzen den tokian, eremua egonkortzeko pantaila bat eraiki dute. Lan horiek guztiek 850.000 euroko kostua dute eta horiek laguntzeko Nafarroako Gobernuak 650.000 euro emanen ditu; gainerako, berriz, Baztango Udalaren gain geldituko da.

Donezteben ere moldaketak egingo dira. Izan ere, uraren depositua egingo berri dute. 1.000 metro kubikoko edukiera du eta bi basotan banatuta dago.

Depositoa egiteko eta bertara joateko bidea hobetzeko lanak 400.000 euro kosta dira eta Gobernuak 320.000 euro emanen ditu.

Doneztebeko ur hornidurako zerbitzuen hobekuntzen artean, Elbistegi eta Ezpelurraldeko etxebizitzetarako horniduraren bigarren fasea ere egingo zen, Finantza Inbertsio Iraunkorren Planean (IFS) sartua.

Eskualdean, proiektu gehiago

Orain artean Nafarroako Gobernuak 1.050.000 euro bideratu ditu, baina Baztan-Bidasoan egingen diren hobekuntzak laguntzeko bertze 950.000 euro emateko (lanak aitzinera joan ahala banatuko dira). Baztan eta Doneztebekin batera, **Arantzan** (bideak eta udaletxearen zaharberritzea, 25.000 euro), **Beran** (sareak hobetzea, argiteria-lanak, Eztegarra frontoiko egokitzapenak eta musika eskolako lanak, 500.000 euro); **Donamarian** (zoliberritzeak, 55.000 euro); **Eratsunen** (udaletxea zaharberritzea, 42.000); **Sunbillan** (eskola egiteko urbanizazio lanak, 27.000 euro); **Urdazubin** (bideak egiteko, 25.000 euro); **Zugarramurdirin** (57.000 euro); eta **Bortzirietako Mankomunitatean** (puntu garbietan, 295.000 euro) ere azpiegiturak hobetzeko lanean ari dira.

Kultur 2020 egitarauak musika dakar abuztuaren Zugarramurdira

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatzen duen Kultur programaren 25. edizioa abiatu da eta eskualdean ere zerbait ekitaldi egingo dira dagoeneko.

Abuztuaren 22an Zugarramurdirin, Tipitako musika taldeak kontzertua eskainiko du lezean 18:00etan. Leizera sartzeko prezioa 4,50 eurokoa da.

Nafarroako talde hau 2010ean sortu zen, flamenkoaren, rockaren eta estilo latinoen ukituak nahasiz. Lokal txikietan hasi ziren kontzertuak ematen, eta, poliki-poliki, agertoki berriak lortzen hasi ziren, hala nola, 360 Nafarroako Jaialdia, Foru Plaza bi aldiz Iruñeko sanferminetan eta Errioxako Actual Jaialdia. Zenbait lehia-keta ere irabazi zituzten, Nafarroako Gazte Artisten Topaketa eta Errioxako Guerra de Bandas, bertzeak bertze. Beren ibilbidean zehar, artista ezagunekin partekatatu dute agertokiak: Chambao, Celtas Cortos, Gipsy Kings, Chiki Lora, Talko, Kase, etab. Hiru lan argitaratu dituzte: *Maskaraquespalda* (2012); *Tipitako* (2014) eta *Sonido de Bolsillo* (2017). Tipitakok eskaintzen duen emanaldia energetikoa da eta lotura zuzena eskaintzen du publikoarekin.

Irailaren 12an Beran eta Leitzan izanen dira eskualdeko hondarreko kultur ekitaldiak. Abuztuaren 30era arte Pedro Salaberriren *Bideak* erakusketa ere ikusgai da Bertzen.



Zuzeneko indartsua dauka Tipitakok.

«Furgoneta batean gure txokoa eta zerbitzu guztiak eskura ditugu»

OSKAR ASTIBIA BALEZTENA LEITZAKO KAMPERBIDE ENPRESAREN SORTZAILEA

Zurgin lana garai berrietara egokitu eta duela sei urte hasi zen furgonetak egokitzen Oskar Astibia. Pausoa ematea bezain garrantzitsua denez noiz eman asmatzea, lanik ez du falta izan

E.IRAOLA | LEITZA

Aspaldi hasi zen Oskar Astibia furgoneta hartuta bateko eta besteko txokoak ezagutzen. Horrek eman zion bidea zurgin lana garai berrietara egokitu eta Kamper furgonetak prestatzen hasteko. Duela sei urte sortu zuen Kamperbide enpresa eta gorpil gainean etxetxoak eraikita bezeroi aske izateko aukera ematen die.

Aurretiko esperientzia alde

Etxetik heldu zaio Astibiari ofizioa: «nire aitonak gurdia egiten zituen eta aita zurgina nuen. Aitarekin batera aritu nintzen zurgin eta ebanisteria lanetan 25 urtez». Aitak erretiroa hartu zuenean erabaki zuen afizioa eta ofizioa lotzea: «kamper egokitzapenak egitera ausartu nintzen nuen esperientzia eta eskura nituen lanabesak erabilia». Furgonetetan lan txikiak egiten hasi zen orduan, baina denborarekin esperientzia hartu eta orain, «lan handiago eta espezializatuagoak» egiten dituela azaldu du.

Zurgin lanetan zuen esperientzia hasieran baliagarri izan zitzaion eta lan egiteko modua ez zuela askorik aldatu behar izan dio: «sukaldeko altzariak etxe batean jarri edo furgoneta batean antzekoa da, formak gehiago ajustatu eta aurrera». Aldaketarik handiena furgonetetan leihoak, sabai-leihoak eta txapa lana egin beharra izan direla gaineratu



Oskar Astibia Kamperbide enpresako sortzailea. UTZITAKOIA

du, «baina beti izan dut gustuko autogintza mundua eta ederki moldatzen gara». Egindako apustua ongi ateratu zaiola esan daiteke enpresaren ibilbidea ikusita: «azken lauzpabost urtetan furgonetaren boom-a izan da eta hasi nintzenetik beti izan dut lan ugari». Arrakasta horren atzean furgonetarekin bidaiatzeak ematen duen askatasuna dago bere ustez: «urte osoan ateraldiak egiteko aukera ematen du furgonetak eta gainera erosotasunez». Izan ere, ez dute deus falta: «komuna, berogailua, dutxa, ohea, litera, egongela mahaiarekin, sukaldea... dituzte. Zein ez litzateke animatuko horrela bazterrek ikustera?».

Orain ere, lanez lepo, erlojuaren kontra ari dira lanean: «oporak gertu ikusten dituzte eta jendeak atzorako nahi dituzte lanak». Covid-19arekin ere gora egin die eskaera kopuruak: «nik uste aukera ona dela furgoneta batean bidaiatzea, nolabait isolatzeko aukera ematen digulako. Gure txokoa dugu eta behar ditugun zerbitzu guztiak eskura».

Zerbitzu horiek osatzeko bezeroen beharretara egokitzen dira: «bezeroa gure lanean interesatuta badago berarekin elkartu eta eskatzen duena kontuan izanda aurrekontu pertsonalizatu bat egiten diogu». Ideiak burutik ordenagailura ere eramaten dituzte: «argiago izateko, 3D diseinua

ere osatzen dugu, barruko diseinua nola gelditu daitekeen ikusteko». Segidan armairuetako, zolako, paretetako, sabaiako materialak aukeratzeko dituzte «eta hau dena ongi lotua dagoenean egokitzapen pertsonalizatu egiten hasten gara buru-belarri».

Funtzionaltasuna eta estetika

Furgoneta modelo guztietan lan egiten dute baina azkenaldian bolumen handiko furgonetetan espezializatu dira. Bakoitzak bere denbora behar duen arren, «bataz beste hila-bete inguru behar dugu egokitzapen oso bat egiteko». Jartzen den elementu bakoitza ongi neurtu behar da eta funtzionaltasuna da gakoa: «oso toki txikietan lan egin behar da, kilo kopuru jakin batetik ezin du pasa ibilgailuak eta eskuragarri dugun azken zentimetroak ere garrantzia du». Horrekin batera estetika ere ezin da albo batera utzi, «diseinuak erakargarria izan behar du. Ikusten dutena gustuko dutelako jotzen dute guregana». Egokitzapena eginda ezin dira zuzenean errepidera ateratu, guztia legezatu behar baita «segurtasuna dago jokoan». Horretarako etxe bateko erakuntza lan batean egiten den bezala proiektu bat aurkeztu behar izaten dute: «egin behar ditugun aldaketa guztiak zehaztu eta laboratoriora batera bidaltzen ditugu eta azkenik Ibilgailuen Azterketa Teknikoko zentro batean ikuskatu behar dute gure lana».

Lana albo batera utzi eta bere furgonetarekin bazterrek ezagutzeko tartea ere hartzen du Astibia: «ahal dugun guztietan familiarekin edo lagunekin edozein txoko ezagutzera ateratzen gara ziztu bizian». Toki askotan egona dela ere azaldu du eta gustukoena aukeratzeko eskatuta ez du zalantzarik: «Euskal Herriko txokoak aipatuko nituzke. Hondartza, mendia, basoak eta basamortuaren kontrasteak dituelako kilometro gutxitan».

Festekin lotutako inolako ekitaldirik ez da izanen aurten

Udalak eta herriko eragile guztiek batera kaleratu duten oharrean «arduraz jokatzeko» eskaera egin dute

TTIPI-TTAPA

Leitzako Udalak, Altzadi Leitzeko Kultur Elkarreak, Txosna Batzordeak, Jubilatuen Elkarreak, Denok Bat eta Amazabal guraso elkarteek eta Aurrerako dantzariak, konpartsak eta txistulariek elkarrekin kalera-tu duten oharrean berretsi egin dute abuztuaren 8tik 15era ez dutela inongo ekitaldirik antolatuko.

Maiatz bukaeran jakinarazi zien festa batzordeak herritarrei Covid-19ak eragindako pandemia zela eta aurtengo Santiburtzio pesten antolaketan bertan behera utziko zutela. Krisialdia ez da bukatu eta argi diote: «lehenasuna, orain, herritarron bizia eta osasuna erdigunean jartzea da».

Gaineratu dute festak antolatzeari utzi badiote arduraz-jokatzeko izan dela eta horre-

gatik, «leitzarrei eta gure herrira urtero hurbiltzen zareten bisitari guztiei berdind jokatzeko eskatzen dizuegu».

Hurrengo urterako egin dute hitzordua: «2021eko abuztuaren 10ean plazan elkartu eta ozen oihukatuko dugu Gora Leitzako festak!»

Autobus zerbitzua

Nafarroako Gobernuak, behin-behinean, bertan behera utzi ditu larunbatetan Leitzatik Areso, Tolosa eta Iruñera joan-etorria egiten zuten autobus zerbitzuak. Leitzatik Donostia egunero joaten den linean ere goizeko zerbitzurik ez dute eskainiko. Udalak kexa formalak aurkeztu ditu, erabiltzaileen artean nahasmena eragin baitu eta zerbitzuak murriztu jende-pilaketak sortzeko arriskuak ere oharatarazi du.



UZTARRIA

Illarregik txapela ekarri du Azpeititik

Xabat Illarregi izan zen nagusi uztailearen 27an Azpeitin jokatuako X. Erniarraitz Bertso Sariketean, 292,5 punturekin, eta hark eraman zuen txapela. Jon Gurrutxaga, Maider Arregi, Ane Zuazubiskar, Xabat Illarregi, Oier Etxeberria eta Asier Galarzarekin izan ziren sariketako sei finalistak.

'Ostegunak bizi bizi' ekimenak segida izanen du udan

Ateak ireki eta *Ostegunak bizi bizi* ekimena abiatu zuen Torreana tabernak uztailearen 15ean, Joseba Irazokiren kontzertuarekin. Abereh taldea eta haurrentzako zine emanaldia ere izan dute. Udan euskal kultura eta sortzaileei tokia egiten sortzeko asmoa adierazi dute.

Uztail erdialdean ez da Covid-19 agerraldirik izan herrian

Bisitari etorritako pertsona batek Covid-19an positibo eman zuela jakin ondotik piztu zen alarma uztailearen 17an. Osasunbideak berehala abiatu zuen zegoen protokoloa eta herrian egindako PCR proba guztiek negatibo eman dutela jakinarazi zuen udalak.

NATURA, ONDAREA,
EUSKARA, SAREA,
www.leitza.eus

2021ean zain izango gaituzue!

Gogoratu aurten EZ DIRELA LEITZAKO PESTAK ospatuko.

Leitzako Udala

BAZTAN

Kantatzeko eta musikaz gozatzeko hitzorduak abuztuan

Abuztuaren 8an Baztan Kantuz egitasmoa izanen dute Zigan eta 21ean Elizondon kontzertu sinestesikoa

TTIPI-TTAPA

Kantuak kantari edo musikari adi, baztandar eta ingurukoek urruti joan gabe gozatzeko aukera izanen dute abuztuan.

Heldu den larunbatean, hila-ren 8an, 12:00etan, Baztan Kantuz egitasmoak geldialdia izanen du Zigan. Kantuzaleak plazatik abiatuta, karrikaz karrika ibiliko dira.

2020 Arte eta Kultura egitasmoaren barne, abuztuaren 21ean, berriz, musika sinestesikoa gozatzeko aukera izanen dute Elizondon. Azken hitzordu hori Arizkunenea



Abuztuko Baztan Kantuz Zigan.

kultur etxean izanen da, 19:30ean hasita. Sarrera dohainik izan arren, egoera honetan segurtasuna bermatzeko, edukiera mugatua izanen dela iragarri dute.

Artearen ibilbidez gozatzeko aukera urri hasierara arte

Jose Luis Alzugarai, Diana Iniesta, Lesagibel, Xabier Soubelet, Tomas Sobrino, Santxotena eta Teresa Lafraguaren pintura eta eskultura erakusketak ikusgai daude abuztuaren 30era arte Elizondon, Erratzun eta Arizkun (xehe-tasunak 763. zenbakian).

BRT gaupasako sarreraren dirua bueltatuko dute

Baztan Rugby Taldeak bertan behera utzi behar izan zuen urtero antolatu ohi duen gaupasa eta dirua nola bueltatu aztertzen aritu da. Dagoeneko bilatu dute modua, eta Elizondoko Intza tabernan bueltatuko dute sarreragatik ordaindutakoa.



BAZTAN FUTBOL TALDEA

Mikel Adin eta Oier Zelaieta entrenatzaile

Baztan Futbol Taldeko jubenilek entrenatzaile aldaketa izanen dute. Hurrengo denboraldian Mikel Adin eta Oier Zelaieta izanen dituzte gidari eta haiengandik ikasiz trebatzen segituko dute. Lerro hauen bidez, taldekideek zorterik onena opa nahi izan diete.

Artisauen azoka abuztuaren 22an Elizondon eta 29an Erratzun

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoko artisauak, berriz ere, plazaz plaza euren produktuak erakusten eta saltzen hasiak dira.

Uztailaren 19an, goizez, Erratzun eta 25ean Bertizen izan ziren eta emaitzarekin «arras kontent» gelditu ziren, «guztiz arrakastatsua» izan zelako.

Abuztuan ere azokekin segitzeko asmoa dute. Lerro hauek idazterako orduan, abuztuaren 22an Elizondon eta 29an, hondarreko larunbatean, Erratzun biltzea adostua zuten. Bi horiez gain,



Erratzun uztailean egindako azoka.

Erratzun eta Leurtzan bertzenen bat egiteko aukera aztertzen ari ziren. Datak eta herriak zehaztu ahala, horren berri emanen da ERRAN.EUS atariaren bidez.

BRIKO BAZTAN, SL
Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea
Pinturak
Fatxadak
Pladurra
Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak
T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBATE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitopenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648
Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108
Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Florentino Goñi eta Joseba Otondo prentsaurrekoan. UTZITAKOA

Elizegiren epaiketa-gastuak udalak bere gain hartu behar lituzkeela uste dute

TTIPI-TTAPA

Auzitegi Gorenak Garbiñe Elizegi ardura oroz errugabetu du eta «Geroa Bai eta Navarra Suma Palacio de Arozteguiaren jazarpen estrategian konplize» dirrela diote EH Bilduk eta Ezkerrak.

Garbiñe Elizegik, Baztango aitzineko alkateak, jasandako epaiketen gastuak udalak bere gain hartzeko erabakiari buruz Baztango Geroa Baik eta Navarra Sumak sortu nahi duten nahasmenduaren aitzinean, argibideak emateko beharra ikusizuen udal taldeak eta prentsaren aitzinean agertu ziren Joseba Otondo, EHBilduko

alkatea, eta Florentino Goñi, Baztango Ezkerrako zinegotzia.

Elizegi ardura osoz errugabetu dute

Horien ustez, «Palacio de Arozteguiko pelotazo urbanistikoaren kontra bailaran dagoen gehiengo soziala isilarazteko hautetsiak jazartzen ari da. Modu horretan, azkeneko urteetan prebrikazioagatik sei hautetsiren kontrako salaketak paratu ditu, eta hautetsi batzuen kasuan, gainera, salaketa bat baino gehiago ere paratu du. Haatik, auzitegia salaketa guztiak artxibatzen ari dira».

Palacio de Arozteguiak Baztango hautetsien kontra abiatutako «jazarpen judizial estrategiaren barnean, Baztango aitzineko alkatea pelotazo urbanistiko errateagatik salatu zuen, argudiatuz ohorearen kontrako eraso zela», aipatu zuten Otondok eta Goñik. Auzitegi Goreneraino ailegatu den auzibide luzearen ondotik, aipatu auzitegiak epai irmoa eman du, erranez ohorearen kontrako erasorik ez dela egon. Horrela, Garbiñe Elizegi orduko alkatea ardura oroz errugabetu du.

«Alkatearen kontra»

Udal Gobernu Taldeak adierazitakoaren arabera, «denbora guztian Palacio de Arozteguiak alkatearen kontra jo du, alkate gisa aritzeagatik. Horren erakusgarria da sustatzaileak paratutako salaketan alkatearen parlamentuko agerraldia aipatzen duela, tokiko irratian egindako adierazpenak, udal aldizkari berriak... Betiere, alkate ardurei aipamena eginez».

Epaiaketa-gastuak udalak

ordaintzea «justua eta derrigorrezkoa» da

Baldintza horietan Baztango Udaleko gehiengoak erabaki

du aitzineko alkatearen kontrako epaiketak sorrarazitako gastuak bere gain hartzea. Eta hori bi arrazoiengatik: «justua delako, eta jurisprudenzia kontuan hartuta bai edo bai hala delako».

«Derrigorrezkoa» ere badela uste dute Udal Gobernu Taldeko bazkideek: «Bai edo bai egin beharrekoa. Jurisprudentziak hori agintzen baitu. Epai irmoarekin hautetsia errugabetuz gero, auzibideko kostuak udalak bere gain hartzea agintzen du jurisprudentziak».

Geroa bai eta Navarra Suma

«afera nahasi nahian»

Hortik aitzinerat Geroa Bai eta Navarra Suma «sinplea den afera nahasi nahian» dabiltzala uste dute EHBilduk eta Ezkerrak, «Palacio de Arozteguiaren jazarpen estrategian duten jokaera konplizea justifikatzeko. Jokaera hori larria izanagatik, Aroztegi inguruko herri-luraren eta Lekarozko ermitaren defentsan izandako utzikeriak larriagotzen du. Zeren ez baitugu atzentzen ahal hautetsien ardura handienetako dela ondasun publikoak zaintzea. Orain artio Geroa Baik eta Navarra Sumak Aroztegiaren bederen egin ez dutena».

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

NELI YANCI MAITE IRIARTE
ASEGURUAK eta INBERTSIOAK
Hurbiltasuna eta konfiantza

Santiago 72B, ELIZONDO
T. 948 58 05 04 | 669 32 63 33
generalielizondo@hotmail.com

GENERALI

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ESTRUKTURALAK

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

AROZ-BERRI Orain Kubota ere!

NEKAZARITZARAKO TRESNERIAK

irurita@arozberri.com - Pol. Zaldubia NA-8307, 0,8 km - IRURITA
Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - www.arozberri.com

URDAZUBI/ZUGARRAMURDI

Babes ofizialeko etxebizitzetarako buruzko inkesta abian da

Inprimakiak abuztuaren 14ra arte aurkez daitezke Urdazubiko udaletxean edo elektronikoki

TTIPI-TTAPA

Urdazubiko Udalak babes ofizialeko etxebizitzak erosteko edo alokatzeko interesa duten herritarrendako inkesta bat abiatu du.

Baldintzak eta epeak

Interesa dutenek eta txostean aipatzen diren baldintzak betetzen dituztenek inprimakia bete eta udaletxean aurkez dezakete abuztuaren 14a, ondoko ortziralea, baino lehen. Bai udal bulegora eramanda baita elektronikoki ere jasoko dituzte.

Eskatzaileek, bertzeak bertze, honako baldintzak hauek bete beharko dituzte: ezgaitasun zibilik ez edukitzea, adinez nagusia izatea, Nafarroan erroldatua, bizitoki baimenduna eta diru-sarrera minimoa duena izatea. Horrez gain, eskatzaileak babes ofizialeko etxebizitza erosteko edo alokatzeko interesa duen adierazi beharko du.

Xehetasunak

Baldintza eta xehetasunak www.urdax.es webgunean daude eskuragarri.



Segurtasun neurri guztiak betez ospatu zuten Lezeen Eguna. JUAN MARI ONDIKOL

Lezerako bisita guztiak bete dira aurtengo Ikaburuko Lezearen Egunean

ARANTXA ETA IRAIA

Uztailaren 18an herrian ospatu zen Ikaburuko Lezearen Egunean jende dezente bertaratu zen herrira. Segurtasun neurri guztiak mantenduz. Hala nola, artisauen postuekiko distantzia mantendu eta bisitariak sartzeko zirkuitu bat jarraitu behar izan zuten; eta

noski, musukoa jantzita ibili ziren ibilbide osoan. Aitzinetik, sarrerak Internet bidez erosi behar izan zituzten.

Segurtasun neurri horiek guztiak mantenduz, aurtengo Ikaburuko Lezearen Eguna ere arrastatsua izan zela erran daiteke, lezerako bisita guztiak bete baitziren.

Udako ekitaldi gehienak gibelatuak eta bertze hainbat kolokan

ARANTXA ETA IRAIA

Egoera ikusirik, udalak udarako antolatzen dituen hainbat ekitaldi 2021 urte arte gibelatu ditu. Irailean egin beharreko Euskal Artzainen Besta eta Pottokaren Besta aurtengoz ez dira egingen. Modu berean, Burdinaren Eguna eta Pilotaren

Unibertsoa oraingoz ez dira ospatuko. Halere, badira oraindik egiteko aukera duten ekitaldiak; tortilla txapelketa eta herrikirolen erakustaldia. Nahiz eta aurten ez diren ohiko ekitaldi hauek ospatuko, udan kontzertuak eta antzerkiak antolatzeko intentzioa dute.

Tipitako taldearen emanaldia abuztuaren 22an Zugarramurdin

TTIPI-TTAPA

Kultur 2020 programaren barne, abuztuaren 22an Tipitako taldearen emanaldia izanen dute Zugarramurdin. Herriko lezean dute hitzordua 18:00etan eta sartzea urririk izanen da (lezeerako sarrera bertzerik ez da beharko).



18:00etan hasiko da emanaldia.

Historiaz beteriko etxeak ezagutzeko bisitak abuztuan Zugarramurdin

TTIPI-TTAPA

Plazatik abiatuta, herriko txoko politak eta bertako historia ezagutzeko bisita-gidatuak egingen dituzte abuztuan Zugarramurdin. Ortziraletan arratsaldean, 17:00etan, izanen dira bisitak; larunbatetan, berriaz, 11:30ean abiatuko dira.

Horiez gozatu ahal izateko, helduek bortz euro eta haurrek hiru ordaindu beharko dituzte. Informazio gehiago nahi dutenek info@zugarramurdi.es helbidera idatzi edo 948 59 90 04 edo 948 59 93 05 telefonora dei eginez eskura dezakete.



Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kantfonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com

SCOTT GIANT MERIDA
ORBEA BH CONDA

Herriarteko pilota txapelketa abuztuan jokatuko dute eskuz

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herriarteko pilota txapelketa berezia izanen da aurten. Zazpi herrik eman dute izena 51. edizio honetan: iaz txapelkun izan zen Doneztebe, Baztan eta Leitza izanen dira eskualdeko ordezkariak eta beraiekin batera, Lizarra, Ultzama, Larraun eta Iruñea ariko dira. Ez da ligaxkarik izanen, kanporaketak baizik, Covid-19aren eraginez, ahalik eta aGudoen egin nahi baitu Nafarroako Pilota Federazioak. Lau kategoriatan jokatu ditzute partidak: alebin, infantil, junior eta seniorrak.

Txapelketa sistemari dago-kionez, iazko txapelkun izateagatik Doneztebe zuzenean finalerdietarako sailkatua dago. Bertze sei herriek abuztuaren 9an jokatu ditzute final laurdenetako kanporaketak, zozketaz egokitutako herrian. Baztan eta Leitza aurrez aurre izanen dira Elizondoko pilotalekuan. Bertze kanporaketetan, Lizarra eta Ultzama alde batetik, eta Larraun eta Iruñea ariko dira nor baino nor gehiago, lehenik aipatutako herrietan. Iruñeko Labriten jokatu ditzute finalaurrekoak abuztuaren 15ean eta 16an, goizez. Larunbatean, Baztan-Leitza eta Larraun-Iruñea kanporaketetako irabazleak lehiatuko dira eta igandean, Lizarra-Ultzama kanporaketako irabazlearen kontra ariko da Doneztebe. Final handia abuztuaren 22an jokatu dute Labriten.

Goizuetak ez dauka kategoriaz guztietan pilotariak aurkezteko modurik eta horregatik, uztailean, *lagunarteko* herriartekoa ere jokatu du Larraunekin. Uztailean 11n Lekunberrin eta 18an Goizuetan jokatu zituzten partidak ikusgarriak.



Iruñeko Alde Zaharreko txapelketako txapelkun eta finalistak, osasun arloko langileekin eta antolatzaileekin. JOSEBA ZABALZA

Zubiri eta Uterga txapelkun suertatu dira uztailaren 18an

Goizuetarrak Galarretaren 50. urteurreneko txapelketa irabazi zuten eta Doneztebekoak Iruñeko Alde Zaharrekoa Labriten

TTIPI-TTAPA

Xanti Uterga doneztebarrak eta Garcések irabazi dute Iruñeko Alde Zaharreko seigarren erremonte txapelketa. Uztailean 18an Iruñean jokatu eta finalean 35-29 irabazi zieten Josetxo Ezkurra II.a doneztebarrari eta Agirrezabalari. Bigarren mailako finalean, Aldabe eta Barricart-ek pronostikoak bete eta 35-19 irabazizieten Doneztebeko Aimar Jabalera eta Oizko Aimar Saldias profesional berriei. Bi finalen artean, eRemonte Euskal Jai enpresak eta Remonte Fundazioak omenaldi polita eskaini zieten osasun zerbitzuei, Covid-19aren pandemian egiten ari diren lanagatik. Jendetza handia bildu zen Labriten, baina segurtasun-protokoloak zorrotz bete ziren.

Final nagusian, Xanti Utergak kalitate erakustaldia eskaini zuten, Garcések ongi lagunduta, baina Josetxo Ezkurra eta Agirrezabalak ez zizkieten gauzak erraz utzi. Gorriak 6-1 aitzinetik jarri ondorengo seina berdindu zuten urdinek, baina hortik aitzine-

ra jaun eta jabe izan ziren gorriak, 12 tanto arteko aldekin (10-7, 16-10, 23-14, 27-15, 33-21, 34-23). Ezkurra II.ak eta Agirrezabalak sei tanto egin zituzten azkenean, baina markagailua itxuratzeke baino ez zuten balio izan (35-29).

Bigarren mailakoan, Aldabe eta Barricart-ek pronostikoak bete eta 35-19 irabazi zieten Jabalera eta Saldias. Malerrekako gazteak urduri hasi ziren (9-0) eta bai aitzinean, baita giblean ere gehiago izan ziren txapelkunak.

Urriza eta Zubiri Galarretan

Egun berean, Urrizak eta Aritz Zubirik erraz gaintu dituzte Juanenea eta Endika, 16-35, Galarretako 50. urteurren Txapelketako finalean. Iruñeko eta Goizuetako bikoteak bere mailarik hobereanean jokatu zuten eta saldiastarrak ezinean aritu ziren.

Urriza hasieratik jokoan sartu zen eta tantoak erraz akitu zituen. Zubirik Endika eutsi bakarrik ez, gaintu ere egin zuten. Sakearekin bikain ibili zen goizuetarra eta aukerarik ez zion eman Saldiasiko bikoteari. Partida hasiera berdindu izan zen, baina launako berdinketaren ondorengo 0-8ko partziala lortu zuten urdinek eta, ederki jokatu, alde handitzen joan ziren.

Partidu amaieran Juaneneak «erridikulu» hitza erabili zuten eta Zubirik azpimarratu zuten «entxufatuta» sartu zirela bai bera baita Urriza ere.



Zubiri eta Urriza txapelkun, Endika eta Juanenea azpitxapelkun. MAIALEN ANDRES

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Etxea salgai edo errentan emateko. 3.500m²ko partzelarekin. ☎616 24 35 30.



LESAKA. Etxe dotorea salgai, hobekuntza aunitzekin. Argibide gehiagorako eta ikusteko deitu. Eskaintzak aditzeko prest. ☎609 47 72 77.

BERTIZARANA. Borda salgai ura eta argiarekin. 20.000 m²ko lur eremuarekin. ☎693 69 49 76 (Jose M^a).

LABAIEN. Zaharbertitzeko dagoen baserria eta eraiki berria den etxea salgai, bizitzeko prest. 19.000 m²ko lur eremuarekin. Eguzkitsua eta bista ederrekin. ☎630 23 50 64.

EROSI

BERA-LESAKAn enpresa eraikitzaile bat pisu bila. 600 euro arte ordaintzeko prest ☎657 05 04 43 (Patxi).

MALERREKA, BAZTAN ETA BORTZIRIAK aldean baserria, etxebizitza, borda edo eraikitzeko lurra erosi nahi dituzte. ☎640 07 65 75.

ERRENTAN EMATEKO

BARAÑAIN. Ikasleentzako pisua errentan emateko. ☎626 36 38 49.



LESAKA. Lesaka erdigunean eraiki berria den apartamentua errentan emateko. Mobleztatua. Trasteleku handia. 470 euro hilabetean. ☎657 70 89 42 (Whatsapez idatzi).

ERRENTAN HARTZEKO

MALERREKA-BAZTAN aldean pisu bila, epe luzerako. ☎600 64 34 60.

LESAKA. Jubilatua bat apartamentu bila: logela bat (ohatzerik gabea berdin), sukaildea (hozkailek gabea berdin), komuna... 300 euro arte ordaintzeko prest. ☎658 50 38 95.

GARAJEAK/LOKALAK

KONPARTITZEKO

LESAKA. Konpartitzeko garaje bila, motorra sartzeko. Prezio ekonomikoa. ☎675 70 27 42 (Alex).

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Tipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

ZERBITZUAK

ZURGINDEGIAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

LURRAK/ORUBEAK

EROSI

Etxebizitzak egiteko, botatzeko edo zaharbertitzeko lurra erosten ditugu. ☎640 07 65 75.

ZUBIETA. Herri xarmangarria. 400m²ko partzela urbanizatua salgai. Herriko zonalde onenean, erreka ondoan, eguzkitsua, erakargarria eta bibrazio onak. 50.000 euro. Erraztasunak. ☎698 51 15 25.

ETXALARKO UDALA

USATEGIEN ENKANTEA 2020

Udal honek enkante irekia egiten du aurtengo ehizaldirako larmendiko barrutian dauden usategiak errentan jartzeko. Enkantea Herriko Etxean egiten da 2020ko irailaren 5ean, goizeko 12:00etan, ahozko eskaintzen bidez. Baldintzak udal idazkaritzan daude interesaturik daudenen eskura, baita udalaren web orrian ere (www.etxalar.eus).

Etxalarren,
2020ko abuztuaren 4an.
Alkatea, Miguel Maria
Irigoi Sanzberro

LANA

ESKARIAK

Esperientzia handia duen erizain laguntzailea adinekoak edo haurrak zaintzeko prest. ☎605 24 30 57 / mitxina37@hotmail.com.

Esperientzia duen gizonezko bat lan bila. Edozein lanetan aritzeko prest. ☎641 26 57 64.

ESKAITZAK

BORTZIRIAK. Aholkularitza bulego batean aritzeko langile bat behar dute. Lan-arloan aditua. Bidali curriculumak: laneskeintza31@gmail.com.

BERA. Familia batek adineko pertsona bat zaintzeko norbait behar du. ☎696 57 82 56.

MOTORRAK

TAILERRAK



DENETARIK

SALEROSKETAK



Bi hilabete baino ez dituen **ospitaleko ohatzea** salgai. Nules Plus, 90x190 cm eta gurgil independentek. Hiperfoam Plus 90x190 koltxoia. Koltxoi gainekoa Suavites 190x90 cm, transpirablea eta iragazgaitza. Zuntzeko burkoa, 90 cm-koa. Mahaixto zuri tolesgarria. 1.200 euro. ☎673 54 87 67.


Mendiko bizikleta elektriko salgai, berria, gutti erabilia. Prezio onean. ☎675 60 35 27.

GALDU-AURKITUAK

Uztailaren 10ean, 18:00etatik 19:00etara bitartean, **antejo** errektangular samarrak, marko berdekoak marra morearekin, **galduak**. ☎699 54 68 13 / 646 05 02 33.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Lau hilabeteko **bi katu** opari. ☎677 09 95 99.



Podenko arrazako bi urteko **zakurra** oparitzeko. ☎618 96 31 56.

BAZTANGOIZA TAILERRA

Toyota Land Cruiser VX
2007koa - 6 abiadura - 173 CV

Citroen Berlingo
2013koa - 128.000km - 90 CV

Citroen Berlingo
100 CV - 76.000km

Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847
baztangoiza@yahoo.es
www.baztangoizataillerrak.com

HERIOTZAK

- **Jose Ramon Arregi Igoa**, Oronoz-Mugairikoa, uztailaren 17an, 84 urte zituela.
- **Jose Luis Elizalde Gorosterrazu**, Iturengoa, uztailaren 20an.

URTEURRENA

Martin ZOZAIA ABANZ Altto

Lesakan, 2019ko abuztuaren 12an, 81 urte zituela
I. urteurrena

Umores eta alaitsu egoten ginen elkarrekin, eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.



ZURE FAMILIA

Bere aldeko meza abuztuaren 16an izanen da, 11:30ean, Lesakako San Martin elizan.

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

Zerbitzuak Baztanen, Bortziritan, Bertizaranan eta Malerrekan

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

HEMEN, ZURE ONDOAN AGÜ, A TU LADO

BAZTAN BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEB**en Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70

URTEBETETZEAK



Amezti inguruan bada ospatzeko aitzakiarik. Abuztuaren 9an, 10ean eta 15ean urteak beteko dituzte **Beñat, Udane** eta **Hilarik**. Egun ona izan denen partetik eta tarta goxoa espero omen du zuen arrea-biloba Iratik.



Eneko Ugalde Fagoagak abuztuaren 24an 5 urte beteko ditu. Zorionak eta borts muxu handi Arantzako eta Azpeitiko familiaren partetik.



Berako **Oier Larretxea Agirrek** 20 urte beteko ditu abuztuaren 26an. Aunitz urtez, pasa egun ona eta ea nola ospatzen dugun!!



Aunitz urtez **Eneritz!** Muxu haundi-haundi bat eta ongi-ongi pasa abuztuaren 13a! Heldu den urtean ospatuko ditugu aurtengoa eta heldu den urtekoa!



Aunitz urtez **Siuka Bidegarai Iturre** gure tximeleta mugalari! *Parabéns maluquinho! Mamãek* eta aitak mila musu igortzen daukizugu! Besarkada erraldoia Argentinako eta Bidarraiko familiaren partetik. Segi beti bezain alai!




Arantzako **Larraitz Goñi Aranguren**ek 6 urte beteko ditu abuztuaren 23an. Ongi pasa zure eguna *preziosa*. Muxuak atta, ama eta bi amatxien partetik.



Ainara Hita Aranguren igantziarrak, 5 urte beteko ditu abuztuaren 23an. Aunitz urtez gure etxeko sorgintxoari, bereziki Olaiaren partetik. Muxu haundi bat!!!



Sunbillako **Ibai Petrirena Gorosterrazuk** abuztuaren 9an 10 urte beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik, baina bereziki Iraide eta Garaine lehengusinen eta nola ez, ama eta Ander anaiaren partetik. Egun ederra pasa dezazula. Ederki ospatuko dugu. Besarkada bat!



Narbarteko **Unai** eta **Saioa Zubigarai Bertizek** abuztuaren urteak beteko dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik eta ederki ospatu zuen egunak! Muxu haundi bana!

PLAZAN BAZAN



7 DIFERENTZIAK

Ondoko bi irudiak arras antzekoak dira baina, ongi begiratu gero, badaude 7 diferentzia irudi batetik bertzera. Ea aurkitzen dituzun?




ESAERA ZAHARRA

Katalingorri:
gaur eguzki,
bihar euri.



KOLOREZTATZEKO

Koloreztatu beheko mandala nahi duzun bezala.



Zure herrian nola erraten diozue kattalingorriari?

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5

KONTATU, KONTATU

Zenbat kattalingorri kontatzen dituzu goiko irudian?

16 18 23
 19 22

Ttipi Txartela

arekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

763

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako aquariuma - 2 sarrera
M^a Jesus V. Zabaleta Zabaleta | LEITZA
Onddo eta punto - Kamiseta bat
Pedro Arretxea Mendiburu | AZPILKUETA

La Rhune - 2 sarrera
Javier Babace Erasun | URROZ

Wow park - 2 sarrera
Axun Maia Ariztegi | ETXALAR

Irrisarri land - 2 sarrera
Juan Fermin Diharasari Zaldain | URDAZUBI

Zugarramurdiko Lezeak - 2 sarrera
Maite Goñi Otxoteko | ARANTZA

Katxiporreta - lote 1

Andoni Jaen Sobrino | ELIZONDO

Katxiporreta - lote 1

Mirari Erregerena Bera | ITUREN

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Kamiseta bat

LA RHUNE

www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

Wow Park

wowpark.fr



2 sarrera

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



2 sarrera

ASTIZKO LEZEAK

www.mendukilo.com



2 sarrera

MUSIKA



1. lotea

- Doctor Deseo
- Dientes de luna
- Guda danza
- Des-kontrol



2. lotea

- Harria
- Dientes de luna
- Ze esatek
- Mainer Zabalegi

baga-biga
MUSIKA IDEIAK

www.baga-biga.eus

LA GUNTZAI LEAK



www.erein.eus



www.rhune.com